


hh  
hik hasi

**Pantailak zertarako?**  
**Koldo Rabadan Izagirre**  
**El Maizaleko haziak ureztatzen**  
**Nora Salbotx. 'Askatu edo moztu' liburua**  
**Hilekoarekin adiskidetzeko bidean**  
**Euskal Hezkuntza Zerbitzua. Zertan datza?**  
**Ane Aleman Quintana**



AUZMENDI BEKA, EMANA

# KATTA

ZURE ABENTURA-LAGUNA



MIREN AGUR MEABE • LOTURA FILMS

elkar

[www.elkarargitaletxea.eus](http://www.elkarargitaletxea.eus)

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## PANTAILAK ZERTARAKO?

Hik Hasik antolatuta *Pantailak 0-6an, zertarako?* izeneko jardunaldiak izan ziren joan den azaroaren 19an eta 20an BECen eta Zumaian. Mundu digitalean bizi gara eta pantailak ez dira desagertuko baina horiek arduraz erabiltzeko beharra azpimarratu zuten bertan hizlari aritu ziren adituek. Izan ere, pantailak haurren garapenean arazoak sortzen ari direla diote ikerketek eta errealitateak.

ELKARRIZKETA / 18

## KOLDO RABADAN IZAGIRRE

*Bidean. Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo* izeneko liburua argitaratu berri du Koldo Rabadan Izagirrek. Irakasle gisa 22 urtetan bizi izandakoak eta ikasitakoak bildu ditu liburuan eta irakasleak hurrekiko begirada aldatzera eta ausart jokatzera gonbidatu ditu. Baita, arauak arau, gela barruan aldaketak egitera ere.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2021-11-23).

Kopurua: 3.400 ale.

**Azaleko argazkia:** Jon Urbe / Foku.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

5 EDITORIALA

Burua altxa dezagun  
burua altxa dezaten

10 GAI NAGUSIA

Pantailak zertarako?

18 ELKARRIZKETA

KOLDO RABADAN IZAGIRRE  
"Zorionez, hezkuntza pertsonetan oinarritzen da eta irakasle bakoitzak, arauak arau, gela barruan aldaketa asko egin ditzake"

24 ESPERIENTZIAK

Venezuelako El Maizaleko haziak ureztatzen

28 EKARPENAK

Joxe Mari Auzmendi  
Hezkuntza Beka

30 EKARPENAK

Nora Salbotx: "Kolonizazioa ari du gure hezkuntza sistemen baitan"

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Hilekoarekin adiskidetzeko bidean

36 GALDEIDAZU

Euskal Hezkuntza Zerbitzua.  
Zertan datza?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

'[www.motmo.pro](http://www.motmo.pro)'

42 ATZEKO ATETIK

Ane Aleman Quintana



Beste aldean basoak omen daude eta mendiak.

Bai?  
Niri esan didate herria ere beste alde horretan dagoela.



Aurrekoan atea ireki zen une batez eta zerbait ikustea iruditu zitzaidan.

Egia?



Bai bai!  
Nik uste mundu oso bat dagoela hesi honen beste aldean.



Pena da ba, eskola eta bertan gaudenak hesiz inguratu beharra-

Egia!  
Hor kanpoan ere egongo da z'er ikasia!

# Burua altxa dezagun, burua altxa dezaten

## editoriala

PANTAILAK GURE BIZITZAREN ZATI DIRA ETA GURE ESKU DAGO ARDURAZ ERABILTzea. HAURREK HORI EGITEN IKAS DEZATEN, ORDEA, EREDU IZANGO DIREN HELDUAK BEHAR DITUZTE HAIEN ONDOAN.



**O**sasun arazoak, hizketarako arazoak, harremanak izateko arazoak... Gero eta gehiago dira halakoak dituzten haurrak. Eta, kasu askotan, pantailen erabilera goiztiarrarekin eta desegokiarekin zerikusia duten arazoak dira horiek guztiak. Pantailak haurren garapenean sor ditzaketen arazoak begi-bistakoak dira dagoeneko, eta ikerketek eta errealitateak pantailak arduraz erabiltzeko beharra azalarazi dute.

Gai horixe izan zuten ahotan hainbat hizlarik *Pantailak 0-6an, zertarako?* izenburupean **Hik Hasik** antolatutako jardunaldian. Denek bat egin zuten pantailak arduraz erabiltzea garrantzitsua dela esatean. Eta erabilerak esanguratsua izan behar duela azpimarratu zuten. Beharrezkoa al da, esaterako, haurrei ikasgelan forma geometrikoak erakusteko pantaila erabiltzea? Ezin al dugu hori beste material batzuk erabiliz egin? Gu mugikorrari begira eta haur txikiak telebistari begira egon behar, ez al da hobe elkarrekin tarte bat hartu eta ipuin bat irakurtzea? Hamaika galdera egin diezazkiokegu geure buruari.

Ez da beharrezkoa pantailak erabat alboratzea, ordea. Sormena lantzeko edota esperientziak partekatzeke erabil ditzakegu. Baita gozatzeko ere. Gelako jarduna osatzeko ere erabil daitezke, jakina, beste material batzuekin egindakoa osatzeko denean. Kontsumi-

tzaile huts bihurtzen garenean edota pantailak haurraren eta helduaren arteko harremana oztopatzen dutenean dator arazoa. Haurrak bere garapenerako behar-beharrezkoa du helduak ondoan izatea baina zer gertatzen da helduak begiak pantailan iltzatuak baldin baditu, edota, une batez lasai egoteko ume txiki bat pantailara begira jartzen badu?

Arazoak ez baitira sortzen soilik hurrek pantaila begiratzen dutenean, arazoak sortzen dira pantailari adi dagoen helduak haurra begiratzen ez duenean ere. Euren burua subjektu gisa eraikitzeke helduaren presentzia behar dute haur txikiak eta helduak pantaila barneko edukietan igeri ibiltzen gara maiz, ondoan dugu txikiaren beharrak gerorako utzita. Haiekin egoteko denbora hartzea ezinbestekoa da osasuntsu gara daitezen nahi baldin badugu.

Pantailak ez dira gure bizitzatik desagertuko. Gizarte digitalean bizi gara, pantailak inguratuturik. Gure bizitzaren zati dira eta gure esku dago erabilera egokia ematea, arduraz erabiltzea. Haurrek hori egiten ikas dezaten, ordea, eredu izango diren helduak behar dituzte haien ondoan. Geure buruak hezi behar ditugu eta pantailatik burua altxa behar dugu txikiak ere altxa dezaten. Pantailak itzalita pertsonen arteko konexioak piztu daitezen. Pantailak gure arreta bahitu ez dezaten. Ingurura begiratuta ere, asko baitugu ikusteko eta ikasteko.

---

“EAEko botere autonomikoaren politikak nazio-identitate espainolean sozializatzen ditu gure ikasleak... Hori da gure eskoletako geletan agerian ez bada ezkutuan indarrean dagoen curriculum nazionala.”

Joxe Manuel Odriozola

# HILEKO IRUDIA

---





## 6. ETA 7. PROMOZIOETAKO IKASLEEK DIPLOMA JASO DUTE

**Hik Hasi** antolatutako formazioko 6. eta 7. promozioetako ikasleek diploma jaso zuten joan de azaroaren 13an Usurbilen. *0-3 urte: EMMI PIKLERen hainbat ekarpenetan inspiraturiko Haur Hezkuntzako formazioa* jaso zuten 6. promozioko partaideek, eta *0-6 urte: Haur Hezkuntzako pedagogia berritzaileak eta eraldatzaileak* izeneko formazioa 7. promoziokoek. Berrogeita hamar pertsona inguru elkartu ginen eta ekitaldi xumea eta alaia izan zen. Kalejiran heldu ziren ikasleak diploma-banaketa ekitaldira. Dantzari batek agurra dantzatu ondoren, diploma jaso zuten guztiak irakasleen eta **Hik Hasi** komunitateko kideen eskutik eta, ondoren, trikitiaren eta Porrotxen eta Txapasen laguntzaz, kantuan eta dantzan aritu ziren giro onean. Bazkariarekin batera eman genion amaiera ekitaldiari.


**Argazkia: Hik Hasi**  
Usurbilen, 2021eko azaroaren 13an

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## KATALUNIako MURGILTZE EREDUA AMAITU DU ESPAINIAK

Murgiltze eredia amaitu egin da Katalunian. Espainiako Auzitegi Gorenak baztertu egin du azaroaren 23an Generalitateak iaz aurkezturiko kasazio helegitea, eta, hortaz, Katalunian ikastorduen % 25 gazteleraz ematera behartu du. Ebazpenaren arabera, ikasleek "berehala" hasi behar dute eredu berri horretan ikasten. Kataluniako Hezkuntza kontseilari Josep Gonzalez-Cambrayk eta Kultura kontseilari Natalia Garrigak eman zuten epaileen erabakiaren berri. Agerraldian, Gonzalez-Cambrayk "lasaitasuna" eskatu zien ikastetxeei, eta indarrean dauden programak ez aldatzeko: "Egungo eredia mantenduko dugu". Bi kontseilarien us-tetan, Gorenaren erabakia "zuzeneko eraso bat da" Kataluniako hezkuntza sistemaren kontra.



## IKASTURTEA ERREPIKATZEA EZ DA IZANGO GAINDITU GABEKO IKASGAIEN ARABERAKOA

LOMLOE Hezkuntza Legea Hobetzeko Lege Organikoak jadanik jaso zuen gisan, 2021-2022 ikasturte aurrera, ikasturtea errepikatzea ez da gainditu gabeko ikasgaien arabera izango, Espainiako Ministroen Kontseiluak dekretuz hala onartu ostean. Ikasle batek ikasturte bat errepikatzea "salbuespeneko neurri" izango zela jasotzen zuen LOMLOEk. Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan zein Lanbide Heziketan. Espainiako Ministroen Kontseiluak errege dekretu berri bati eman dio onespena azaroaren 16an, eta xehetasun gehiago jaso dituzte hala: ondoko ikasturtera igarotzea edo berbera errepikatu beharra ez da ikasleak gainditu gabe utzitako ikasgai kopuruari lotua izango. Kontrara, erabakia irakasleen esku egongo da osoki; haiek zehaztuko dute errepikatu beharra den edo ez.



## SENPEREN EGINGO DUTE SEASKAREN BOSGARREN KOLEGIOA

Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioak urtarrilean jakinarazi zuen bosgarren kolegioa irekitzeko xedea zuela. Giltzarri izanen da euskarazko hezkuntza hauspotzeko eta eskaria asetzetik hurbilago egoteko. Urteetako ahaleginaren ondotik, Senperen (Lapurdi) hartuko du leku, eta, zabaldutako informazioaren arabera, 2023ko ikasturterako atea ireki beharko lituzke. Berrehun bat ikasleri harrera egiteko eremua izanen litzateke hartan. Seaskak, momentuko, ez du sartu nahi zehaztasunetan, «dena eraikitzea delako», baina Peio Jorajuria lehendakariak *Berriari* baieztatu dio Senpereko Herriko Etxeak 10.000 metro karratuko lursail bat proposatu diela kolegioa eraikitzeko.

# HIZPIDE IZANGO DA

## FILOSOFIA IKASGAIA BABESTEKO ESKATU DIETE HEGO EUSKAL HERRIKO GOBERNUEI

Espainiako LOMLOE hezkuntza legearen harira, Filosofia ikasgaiaren garrantzia “defendatu” zuten azaroaren 19an hainbat filosofia irakaslek, pentsalarik eta artistak. Horien artean egon ziren, besteak beste, Juan Ignacio Perez Iglesias EHUko errektore ohia eta Lourdes Perez, Xabier Lapitz, Iñaki Soto eta Goizalde Landabaso kazetariak. Salatu zuten, lege berriarekin asko txikituko da ikasgaiak hezkuntza prozesuan izango duen pisua. Pentsatu jaialdiaren harira egin zuten agerraldia, Donostiako Filosofia, Antropologia eta Hezkuntza Fakultatean. Lege berriaren “erasoa” salatzeaz gain, erakundeei filosofiaren alde egiteko eskatu zien Maitane Nerekan Agora filosofia elkarteko kideak: “Euskal Herriko gobernuei dei egin diegu dituzten eskumenak baliatuz filosofiaren presentzia defenda dezaten”. Filosofia ez ezik, “autonomia kritikoa” bultzatzen duten ikasgaien presentzia bermatzeko eskatu zuten.



## ESKOLA PUBLIKOARI “LEHENTASUN OSOA” EMATEKO ESKATU DUTE BILBON, MANIFESTAZIOAN

Herritar ugarik bat egin zuten azaroaren 6an Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformaren deialdiarekin, eta manifestazioa egin zuten Bilboko kaleetan “euskal eskola bakarra, publikoa, euskalduna eta inklusiboa” aldarrikatzeko, eta eskola publikoarentzat “administrazioaren lehentasun osoa” eskatzeko. Manifestazioa Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritatzetik abiatu zen, eta Arriaga plazan amaitu zen, *Hezkuntza publikoaren alde. Privatizazioari ez!* goiburupean. Deialdiak eragile askoren babesa zeukan: sindikatu, elkarte eta talde askok bat egin zuten deialdiarekin, eta 127 ikastetxe, haur eskola eta guraso elkartek ere atxikimendua azaldu zuten. EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-IUK ordezkaritza bana bidali zuten mobilizaziora.

## HIK HASI, DURANGOKO AZOKAN, HEZITZAILEON TOPAGUNE

Abenduaren 4tik 8ra egingo da 56. Durangoko Azokaren aurrez aurreko edizioa. Online edizioa, berriz, abenduaren 3tik 7ra bitartean egingo da. *BaDa!* goiburupean egingo da aurtengo edizioa. Bertara joan ahal izateko aurrez erreserba egin behar da webgunean, [www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus), Covid-19aren hedapena murrizteko neurri gisan. **Hik Hasik** Goienkale 12. zenbakian izango du erakusmahai, urtero bezala, hezitzaileon topaleku izango da, aurtenera ere. Animatu!





'Pantailak 0-6an, zertarako?' izeneko jardunaldiak izan ziren joan den azaroaren 19an eta 20 BECen eta Zumaiako Zumaiena ikastetxean **Hik Hasik** antolatuta. Eta galdera horri erantzuteko gakoak izan zituzten ahotan bertaratu ziren hizlariak. Gizarte digitalean bizi gara, pantailak gure bizitzaren zati dira eta ez dira desagertuko, baina beharrezkoa da arduraz erabiltzea. Izan ere, hainbat ikerketek eta eguneroko jardunak errealitate berri bat azaleratu dute azken urteotan: pantailak eragin kaltegarria dute haur txikien garapenean. Jaiotzen diren unetik beretik pantailaekin kontaktuan bizi dira haur asko eta asko, eta helduoi dagokigu tresna horiek txikienen eskura dagokien momentuan eta moduan jartzea. Era horretan, beren buruaren jabe izan daitezten eta pertsonen arteko konexioa pantailaekin duguna baino indartsuagoa izan dadin.

# GAIA: PANTAILAK ZERTARAKO?

Arduraz erabil ditzagun

**S**ei urtetik behera pantailak kontu handiz erabili behar ditugula diote ikerketa askok. Osasunaren Mundu Erakundeak, berriz, bi urtetik behera pantailarik ez erabiltzea gomendatzen du, eta 2 eta 4 urte artean gehienez egunero ordu betez erabiltzea. Errealitateak, bestelako datuak erakusten ditu, ordea: hurrek denbora gehiegi ematen dute pantailen aurrean eta horrek, eragin ezkorra du beren garapenean. Halaxe azaldu zuen Anna Ramisek. Ramis hezitzailea, pedagogo eta pantailekiko mendekotasun goiztiarrean aditua da. *Otik 3ra, pantailarik ez?* liburuaren egilea da eta izen bereko kanpainaren sustatzailea. Kanadan 2019an argitaratutako ikerketa baten datuak mahaigaineratu zituen Ramisek: hiru urtetik beherako haurrak bi ordu eta erdiz egoten dira egunero pantailaren aurrean. “Demagun lehenengo urtean ez duela ezertxo ere ikusten. 2 urteko tarte hori hartzen badugu eta biderketa egiten badugu 1825 ordu ematen ditu haurrak pantailaren aurrean. Umeek adin horretan, bataz beste, 12 orduko loa egiten dutela kontuan hartuta, 152 egun emango lituzkete pantailen aurrean. Bere bizitzako 5 hilabete dira! Garai horretan garuna ga-

ratzen ari da eta pantailek garuna bahitzen dute”, azaldu zuen Ramisek.

Osasunaren Mundu Erakundeak aholkatzen duen kopurua erruz gainditzen du datu horrek. Eta pantailen aurrean denbora gehiegi emateak hainbat zailtasun eta arazo sortzen dizkie txikienei. Ramisek azaldu zuen gero eta gehiago direla hizketarako zailtasunak dituzten haurrak edota mugimenduarekin zerikusia duten arazoak dituztenak. Umeek gero eta giza estimulu gutxiago dituzte. Egoerak alarma sortu zion Ramisi eta bilaketa lanak egiten hasi zen. Orduan ezagutu zuen Kanadan egindako ikerketa. Hark zioen, pantailaren aurrean pasatutako gehiegizko denborak eta froga akademikoetan emaitza eskasak lortzeak lotura zuzena dutela, eta pediatrek zioten hori nahikoa arrazoi baidela pantailen eta gaitasunen garapenaren arteko korrelazio horren gainean arreta jartzeko.

Hiru urtetik beherako haurrei pantailek nola eragiten dieten azaldu zuen Ramisek: “Arazo fisikoak sortzen dira: sedentarismoa, ikusmen eta postura arazoak... Eta jolase-

# GAIA: PANTAILAK ZERTARAKO?

Arduraz erabil ditzagun

rako zailtasunak sortzen dira. Ingurunea pantailak baino mantsoagoa da, sormenerako arazoak dituzte, irudimen falta, kontzentratzeko zailtasunak, emozioak kudeatzeko zailtasunak eta ikasteko zailtasunak”.

Alvaro Beñaran, Pedagogia Terapeutikoan lizentziatua eta ASEFOP-eko (Praktika Psikomotorreko Eskolen Europako Elkarte) prestatzailea eta lehendakaria eta Luzaro psikomotrizitate eskolako prestatzailea da, eta zentzu berean mintzatu zen bera ere: “Eskoletan lengoaiaren erabilerari dagokionez atzerapena ikusten ari gara azkenaldian. Ume batzuek hizkuntza propioa garatzen dute, baina horrek ez die komunikatzeko balio. Umeekin hitz egiteko denbora hartu behar dugu. Haurrak elkarrizketarik abiatzen ote duen begiratu behar dugu, zeren soilik zerbait adierazten badu edo soilik aginduei erantzuten badie, ez dago komunikaziorik. Agindu horiek txakur batek ere bete ditzake. Hitza bizi egiten da, eta helduekin komunikazioa egon bada garatzen da. Haurrekin egoteko denbora hartu behar dugu”, dio Beñaranek. Pantailak tartean sartzen direnean, ordea, haurren eta helduen arteko komunikazioa nabarmen murrizten da.

## Atxikimendu segurua eraikitze arazoak

Pantailen erabilera goiztiarrak beste arazo bat ere sortzen du Ramisen hitzetan: gero eta ume gehiagok eskolara egokitzeko zailtasuna duela atxikimendu segururik eraiki ez duelako. Izan ere, pantailak oztupo dira hezitzailearen eta haurren arteko harremanean. “Pantailarik gabeko aktibitate gehiago behar ditugu. Horrek esan nahi du telebista egongelatik ateratzea edota mugikorra etxeko sarreran isilik uztea. Pantailarekiko konexioa baino, pertsonen arteko konexio handiagoa behar dugu eta Dimitri Christakisek dioten moduan, azpimarra jarri behar dugu pantailen aurrean ez gaudenean egiten dugun horretan”.

“Tamara Chubarovsky-ren esaldia ere ekarri nahiko nuke hona: haurren eta pantailen kasuan, eroso dena garesti ordaintzen dela, alegia. Argi izan behar dugu gu lasai egoteko haurrak pantailen aurrean uzten ditugunean negozio kaskarra egiten ari garela. Izan ere, une horietan

pantailen bidez haurrak anestesiatzen ari gara”, jarraitu zuen Ramisek.

Hainbat galdera planteatu zituen Beñaranek zentzu horretan: “Helduarekin atxikimendu segurua eta banaketa seguruaren eraikitze prozesuan haurren subjektibotasuna, bere identitatea, autonomia, bere sortzeko eta eraikitze gogo beharrezkoak badira, nola egiten du hori guztia pantailarekin? Gogora dezagun atxikimendu seguruak banaketa segurua ekarriko duela. Edo beti beharko al du pantaila bere buruaren osotasuna eta batasuna sentitzeko? Ez al da bera izango pantailarik gabe?”.

Pantailek haurren eta helduen arteko harremanetan eta, beraz, haurren garapenean duten eragin sakon jardun zuen Beñaranek: “Ume batek, jaiotzen denean bere izatea garatzeko, gizaki helduren batek bera gizaki gisa ikustea eta sentitzea behar du. Haurrak gorputz batasuna eraiki behar du eta hori lortuko du baldin eta helduren batekin harremana badu eta helduarekin elkarrizketan ari bada; hasieran hitzik gabeko elkarrizketa izango da, baina elkarrizketa egon badago. Garrantzitsua da haurrak berarekin jolastuko duen, laztanduko duen, hitz egingo duen, eutsiko duen eta jaten emango dion pertsona bat ondoan izatea”. Era betean, haurrek beren burua pantailarekin identifikatzeak duen arriskuaz ohartarazi zuen: “Bizitzako lehen urtean umeak bere existentziaren oinarria eraikitzen du: ‘naiz’. 1 eta 3 urte artean ‘ni naiz’ eraikiko du eta 3 eta 6 urte bitartean nolako ni den argituko du. Pantaila hor erdian sartzen bada, haurra pantailarekin identifikatuko da eta ez gizakiarekin, eta horrek bere ni-a eraikitze prozesuan zailtasun handiak ekarriko dizkio”.

Bestalde, helduok pantailei begira bizitzeak arriskuak dakartza Beñaranen hitzetan: “5 eta 8 hilabete bitartean umeak bestea aurkitzen du baina beste hori mugikorrera begira baldin badago, zer aurkituko du? Pantaila gure zati bilakatu da. Eta heldua haurrekin ez badago, nola garatuko du haurrak bere nortasuna? Ume askori helduekin lortzen ez duten hori ematen diete pantailek: lasaitasuna eta segurtasun sentipena. Baina pantailek heldua bera eta

"Pantailekiko konexioa baino, pertsonen arteko konexio handiagoa behar dugu eta Dimitri Christakisek dioten moduan, azpimarra jarri behar dugu pantailen aurrean ez gaudenean egiten dugun horretan"

## GAIA: PANTAILAK ZERTARAKO?



helduarekiko harremana ordezkatzeko badute, zer nolako ondorioak sortuko dira? Alienazioa gertatuko da. Umeak ez ditu bestearekin izandako esperientziak garatuko eta ez du bere nortasuna eraikiko. Bere burua kanporantz eraikiko du”.

## Pantailak guztiz baztertzeko uneak

Baina zein unetan baztertu beharko genituzke erabat pantailak? Otorduetan ez genituzke erabili beharko, ezta lokartzeko edota lasaitzeko ere. Zergatik? Ramisen ustez, ikasketa eta harremanak eragozten dituztelako: “Bakarrik jatea ariketa osoa da; psikomotrizitatea, gustua, nortasuna, harreman sozialak... lantzen dira. Baina umea pantailaren aurrean dagoenean, koilara gertu duenean ahoa zabaldu besterik ez du egiten. Ez daki zertan ari den ere. Ez dut esaten pantailarik sekula erabili behar ez denik. Denbora pasatzeko, gozatzeko, partiduren bat ikusteko... jar ditzakegu, baina inolaz ere otorduetan, lokartzeko edota lasaigarri moduan”.

Iritzi berekoa da Beñaran: “Batuetan, haurrak pantaila baten aurrean jartzen dituzte eta bitartean norbaitek gosaria ahora ematen die, janzen ditu. Dena egiten die. Haur horiek ez dira euren gorputzaz eta gertatzen ari denaz jabetzen. Ez dira gertatzen ari denaren subjektuak. Pantailari begira ari dira eta bat-batean, magikoki, jantzita

daude, ez dute goserik eta ikastolarako bidean daude. Haurrei ez diegu beren gorputzaren eta beren buruaren jabe izateko aukera kendu behar”. Eta jarraitu zuen: “Pantailak umea lasaitzeko, ondo portatzeko, jateko edota lo egiteko erabiltzen badira, umearentzat esanguratsua bihurtzen dira. Eta oso goiz agertzen badira, dependentzia sortzen dute. Garrantzitsua da 7-8 urtetik aurrera agertzea, ordurako haurra autonomoa delako eta gai izango delako pantaila ganoraz erabiltzeko. Bestela, pantailak erabiliko du umea. Batzuei mendekotasun hori komeni zaie gerora haurrak kontsumitzaileak izango direlako. Baina oso garbi izan behar dugu: desberdina da pantailak erabiltzea edo pantailen mende bizitzea. Eta agerpena atzeratzen badugu, errazagoa izango da mendekotasuna saihestea”.

## Erabilera arduratsuen garrantzia

Izan ere, pantailak arduraz erabiltzea da gakoa. “Ez ditugu pantailak gaitzesten baina zertarako nahi ditugun jakin behar dugu. Gaur egun, sortzeko baino gehiago, kontsumitzeko erabiltzen dira. Eta guk sormenerako nahi ditugu. Tracey Tokuhama-Espinosak konfinamendu garaian Haur Hezkuntzako ikasleek pantailak sormenerako nola erabiltzen zituzten azaldu zigun: gurasoek etxea grabatu eta ondoren umeen artean partekatu zituzten grabazioak. Umeek besteen etxeak nola ikusten zituzten komentatu zuten eta ariketa horrek lateralitatea, espazioa, lengoia,

# GAIA: PANTAILAK ZERTARAKO?

Arduraz erabil ditzagun



oroitzapenak... lantzeko balio izan zuen. Bi hilabetez aritu ziren material horrekin lanean. Hori da pantailak sormenerako erabiltzea”, azaldu zuen Ramisek. Bere esanetan, pantailak gozatzeko eta esperientziak eta sormena lantzeko erabili behar dira.

Ramisen ustez, irakasleek eta familiek elkarrekin hausnartu beharko lukete pantailen erabilerari buruz: zertarako nahi ditugu pantailak? “Nik uste dut ‘ni-ni, berehala-berehala’ belaunaldiari aurre egin behar diogula. Ume askok ez dute beren burua baino haratago ikusten eta dena berehala nahi izaten dute”, dio Ramisek.

Pantailek jarrera berekoiak bultzatzen dituztela uste du Ramisek eta iritzi berekoa da Beñaran: “Haurraren

garapenean besteren presentzia eta bestearekin duen harremana hain garrantzitsua baldin bada, hipotesi nagusia da pantaila erdian jartzen denean, zerbait gertatuko dela. Umeak bestea subjektu gisa bizi behar du bere burua subjektu gisa eraikitzeke eta horrekin batera beste gauza garrantzitsu bat eraikiko du: bestea baloratuko duela, kontuan hartuko duela eta errespetatuko duela. Indibidualtasuna eta sozializazioa biziko ditu eta ez indibidualismoa soilik. Pantailak isolatzen badu, ordea, nekez eraikiko du hori guztia. Bakoitza bere irlan biziko da eta harremanak pantailen bidez eraiki beharko ditugu”.

Pantailen erabilerari lotutako hiru mito aipatu zituen Ramisek: lehena, gaur egungo haurrak natibo digitalak direla. Bigarrena, pantailekin harremana ahalik eta arinen hasia hobe dela. Eta, azkenik, soilik jolas hezitzaileak egiteko edota ingelesa ikasteko erabiltzen direla esatea. “Pantailekin umeak anestesiatzen ditugu eta asko eta asko kontsumitzaile hutsak bihurtzen dira. Merkatuak, gainera, horretara bideratutako produktu mordoa eskaintzen du”.

## Jolasaren ordezkio

Pantailak jolasaren ordezkio bihurtzen dira maiz eta horrek arazo larriak ekar ditzake Beñaranen hitzetan: “Haurrak jolasaren bitartez menderatzen du errealitatea. Berak sortutako jolasaren bitartez subjektu gisa kokatzen da errealitatean. Bere subjektibotasuna eraikitzeke, bere bizitzaren protagonista eta jabe dela sentitzeko berak sortutako ekintzak, mugimenduak eta jolasak bizi behar ditu”.

Horrez gain, mundu paraleloa sortzen dela gaineratu zuen: “Komunikatzeko zailtasunak dituzten haurrek fantasia erabiltzen dute. Fantasia diot eta ez irudimena. Fantasiak benetako jolasa ordezkutzen du. Benetako jolasa komunikatzeko, adierazteko, errealitatea ezagutzeko edota besteekin partekatzeke sortzen da. Batzuetan, ordea, badaude jolas itxura duten eszenak baina benetako jolasak ez direnak. Eta ez dira sortzen errealitatearekin harremana izateko baizik eta errealitatetik ihes egiteko, haurrek sumatzen duten

"Pantailek heldua bera eta helduekiko harremana ordezkutzen badute, zer nolako ondorioak sortuko dira? Alienazioa gertatuko da. Umeak ez ditu bestearekin izandako esperientziak garatuko eta ez du bere nortasuna eraikiko"

Alvaro Beñaran

## GAIA: PANTAILAK ZERTARAKO?

arriskuren baten aurrean beren burua defendatzeko. Mundu paraleloa sortzen dute. Ez al dago halako mundu paralelo bat pantailetan?”.

Era berean, pantailak zigor edota sari gisa erabiltzearen arriskuak aipatu zituen Beñaranek: “Helduei botere handia ematen digute pantailek. Ez duzula behar bezala jaten? Zigortuko zaitut pantailarik gabe. Oso ongi portatu zarela? Gaur pantaila gehiago izango duzu. Eta umeek horren arabera egokitzen dute portaera. Dinamika horretan haurrentzat pantaila gauza ona, polita eta lasaigarria izango da; ongi portatzen denean baduelako eta gaizki portatzen denean ez duelako”.

## Gidaritza digitala

Gidaritza digitalaren kontzeptua izan zuen ahotan Amaia Arroyo Sagastak. Arroyo Sagasta Komunikazioan eta Hezkuntzan doktorea da eta HUHEZIn Teknologia Digitalean Espezializatutako Hezkuntza Bereziko irakaslea eta ikertzailea da. Bere ustez, oso zaila da haurrak sei urtera bitartean pantailarik gabe bizitzea eta aukera hori errealia ote den zalantzan jarri zuen.

Haurrekin lehen urteetan pantailarik erabiltzen ez bada, ondoren gidaritza digitalaren beharra agertzen dela azal-

"Argi izan behar dugu gu lasai egoteko haurrak pantailen aurrean uzten ditugunean negozio kaskarra egiten ari garela. Izan ere, une horietan pantailen bidez haurrak anestesiatzen ari gara"

Anna Ramis



# GAIA: PANTAILAK ZERTARAKO?

Arduraz erabil ditzagun

du zuen Arroyo Sagastak. Une batetik aurrera, gauzak nola egin behar ditugun galdetu behar diogu gure buruari. Hauxe bere erantzuna: “Lehenik eta behin argi izan behar dugu haurraren ongizatea nahi dugula eta horrekin batera, familiaren ongizatea nahi dugula. Era berean, trantsizio kontzientea egin behar dugu eta ez bat-batekoa. Egokitzapen osasuntsua egitea ere komeni da: egoeraren arabera eta testuinguruaren arabera egokitzen joan behar gara. Eta, azkenik, pantailak zertarako erabiliko ditugun pentsatu behar dugu. Erabilpen horrek, nire ustez, eraikitzailea izan beharko luke. Zerbait sortzeko balio beharko luke, esanguratsua izan beharko luke eta adinera egokitua”.

Eta prozesu horretan komunitate osoaren inplikazioa ezinbestekoa da Arroyo Sagastaren ustez: ezin du familiak

alde batetik joan eta eskolak bestetik. Gidaritza hori komunean eraiki eta adostu behar dela dio: “Ingurune digitalean eta pantailen erabileran gidaritza kontzientea eskaini behar diegu haurrei erabilera hori osasuntsua, segurua, eraginkorra eta esanguratsua izan dadin”.

Zer har dezakegu kontuan gidaritza digitala abiatzeko? Arroyo Sagastak azaldu zuenez, sei alderdi hartu behar dira kontuan: zer gailu erabiltzen dugun, zertarako erabiltzen dugun, norekin, noiz, nola eta zenbat denboraz erabiltzen dugun. Eta horrekin lotuta hausnarketarako bide ematen duten hainbat egoera proposatu zituen: “Demagun larunbata dela, eta gosalduta ostean 10 hilabeteko umeari ipuina kontatzen ari garela. Animaliak agertzen dira eta haien soinua egiten ari gara baina hainbat animaliren hotsak egiteko gaitasunik ez dugunez (adibidez, izurdea

"Pantailak umea lasaitzeko, ondo portatzeko, jateko edota lo egiteko erabiltzen badira, umearentzat esanguratsuak bihurtzen dira. Eta oso goiz agertzen badira, dependentzia sortzen dute"

Alvaro Beñaran



## GAIA: PANTAILAK ZERTARAKO?

edota jirafa) tableta edo mugikorra erabiliko dugu animalia horien soinuak modu errealean entzuteko. Horraino egoera eta orain galderak: Nire laguntza kontzientea da? Bai. Osasuntsua eta segurua da? Eraginkorra da? Esanguratsua da? Nire ustez ez da esanguratsua. 10 hilabeteko haur batekin askoz ere esanguratsua izan litezke gurasoen estimuluak izurdearen soinu erreala baino”.

Beste egoera bat: “18 hilabeteko haurra aztoratuta dago afaria prestatzerako orduan. Telebista edo tableta erabil dezakegu lasai dadin. Bakarrik dago afaria prestatu behar dugulako eta gutxi gorabehera ordu erdi beharko dugu. Kasu horretan gidaritza ez da kontzientea zeren fokua ez dugu haurraren eta bere ongizatean jarri. Gure beharrak asetzeko jarri dugu pantailaren aurrean. Eta gainera ez da segurua: aulkira igo liteke, erori liteke... Kasu horretan, ez diogu laguntzen eta ez dugu jarraipenik egiten. Gidaritza harekin egotea eta laguntzea da”.

Baina erabilera esanguratsuen adibide diren egoerak badira Arroyo Sagastaren hitzetan: “Bi urte eta erdiko haurrarekin bihar ikastolara joateko arropa aukeratzeko ari gara eta horretarako, zer eguraldi egingo duen jakin nahi dugu. Kasu horretan, mugikorra erabil dezakegu eguraldiaren iragarpena ikusteko. Bere logelan, gurasoekin begira dezake iragarpena afaldu aurretik eta ez ditu bi minutu baino gehiago beharko. Kasu horretan erabilera egokia dela uste dut. Helduaren laguntza kontzientea da, osasuntsua da, segurua da eta eraginkorra da. Esanguratsua ere bada zeren Euskal Herriko mapa erakusten diogunean gu non bizi garen azaltzeko aukera izango dugu, biharko iragarpenean eguzkia edota lainoa ateratzen den ikusiko dugu...”.

Eta azken adibide bat ere jarri zuen: “Jada siestarik egiten ez duen 4 urteko haur batek, bazkalondoren, gurasoekin ikus dezake film bat telebistan 30-60 minutuz. Kasu honetan ere erabilera egokia da. Zergatik ez? Gurasoekin dago eta galderak egin ditzake, guk berari ere bai, elkarrizketa sor dezakegu eta ekintza hori hezitzaile bihur dezakegu. Modu horretan ez du mundutik deskonektatzen”.

Etorkizunera begira arazoak saihesteko gidaritza digitala beharrezkoa dela defendatu zuen Arroyo Sagastak: “Gero bestela, 9-10 urterekin pornoa ikusiko dute. Jakina, uzten badiegu tabletean edo mugikorrean beti nahi duten guztia ikusten halako ondorioak izaten dira. Eta kezagarriena ez da 9 urterekin pornoa ikusten ari direla baizik eta nola iritsi diren horraino”.

### Pantailak gurekin geratuko dira

Mundu digitalean eta pantailek inguratuta bizi gara eta hala bizi beharko dugu aurrerantzean ere, pantailak ez baitira gure artetik desagertuko. “Pantailak hor daude eta hor geldituko dira baina garrantzitsuena da pantailek helduaren eta hauraren arteko harremana ez ordezkatea”, azpimarratu zuen Beñaranek. Ramisen ustez, beharrezkoa da pantailen erabilera murrizteko estrategiak izatea, nahiz eta ez den lan erraza: “Errazagoa da asperdurari aurre egiteko erabiltzen ditugun pantailak kentzea kasketei aurre egiteko erabiltzen ditugunak kentzea baino”.

Pantailak errealitatea direla eta ez ditugula sataniko bihurtu behar esan zuen Arroyo Sagastak: “Gurekin daude eta ez dira desagertuko. Egoera kontuan hartuta erabaki praktikoak hartu behar ditugu eta hausnarketa praktikoak egin behar ditugu”. Eta hausnarketarako hainbat galdera luzatu zituen: “Zergatik ditugu hain ikuspuntu kontraerriak? Zergatik gaude debekuaren edo denerako pantaila erabiltzearen arteko dikotomian? Zergatik dago hain alde handia ikerketen eta erabilera mailaren artean? Egoerak guztiontzat berdintsuak ez direla jakinda, posible al da gai honi buruzko jarraibide orokorrik eskaintzea? Haur guztiei berdin eragiten al die pantailen erabilerak? Nola eragiten du gidaritza digitalak pantailen eraginean?”.

Beñaranen ustez, helburua haurrek eta helduek teknologia eta pantailak erabiltzea da, eta ez alderantziz. “Ez da erraza zeren patriarkalismoak, kapitalismoak, inperialismoak eta kolonialismoak beti izan dute mendeko gizakiak sortzeko helburua. Eta teknologia berriak horretarako tresna paregabea dira”, esan zuen.

"Pantailak zertarako erabiliko ditugun pentsatu behar dugu. Erabilpen horrek, nire ustez, eraikitzailea izan beharko luke. Zerbait sortzeko balio beharko luke, esanguratsua izan beharko luke eta adinera egokitua"

Alvaro Beñaran



“Zorionez, hezkuntza pertsonetan oinarritzen da eta irakasle bakoitzak, arauak arau, gela barruan aldaketa asko egin ditzake”

# ELKARRIZKETA:

## KOLDO RABADAN IZAGIRRE

IRAKASLEA ETA 'BIDEAN' LIBURUAREN IDAZLEA

---

Itxialdiak atzera begira jarri zuen Koldo Rabadan Izagirre (Andoain, 1979), Gipuzkoako Larraul herriko eskolako irakaslea. 22 urteko ibilbidean ikasleekin eta bidelagun izan dituen irakasleekin bizi izandakoak eta ikasitakoak bildu ditu 'Bidean. Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo' liburuan. Markotik eta sistematik harago, fokua norbere baitan jarri eta aldaketara gonbidatzen ditu irakasleak, haurrekiko begirada aldatzera eta ausart jokatzera. "Nik irakasleei

honako mezu hau eman nahi diet: posible da; posible da aldatzea; posible da aldaketa txikiak egitea". Ausardiaz gain, formazioa, elkarlana, denbora, entzutea, sormena, bidelaguntza, errespetua, umiltasuna eta zorientasuna balioesten ditu "irakaslearen praktika on" gisara ondu duen dekalogoan. Instrukziorik gabea, emozio sortzaile da zintzotasunetik idatzi eta *Argia* aldizkariak argitaratu duen liburu. Rabadan Izagirre, irakasle izateaz gain psikopedagogoa ere bada.



**Egoerak, beharrak, panoramak... Zerk eraman zaitu 'Bidean. Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo' idaztera?**

Beti izan dut gustuko idaztea, eta idazten dudanean niretzako idazten dut, liberazio moduko bat sentitzen dudalako. Mintegi baten amaieran guraso batek animatu ninduen liburu hau egitera, “Koldo, zerbait idatzi beharko zenuke”, esan zidan, baina hasieran ez nion kasu handiegirik egin. Gero itxialdia etorri zen eta orduan idaztearen ihesbidea bilatu nuen. Egindako ibilbidearen kontaketa idazten hasi nintzen, eta esperientzia pertsonaletik idaztea niretzako askapen bat izan zen, atzera begira jarri eta irakaskuntzan daramatzadan 22 urtetan nola aldatu naizen ikusi ahal izan dut. Aldaketa hori beste irakasle batzuentzat gonbidapen bat izan daitekeela uste dut: aldaketa ona da eta aldaketa behar da; benetan pentsatzen dut hezkuntza sistemak eta eskolek aldaketa behar dutela; horretara gonbidatu nahi ditut irakasleak. Gonbidapen xume bat da, pertsonaletik egindakoa. Gero bakoitzak erabakiko du zer eta nola egin.

**Esan duzun bezala, zeure esperientziatik eta zintzotasun handiz idatzia dago liburu. Momentu batzuetan ikasle batzuekiko zor kitatze bat ere**

**sumatzen da.**

Zor kitatze bat, edo gordinago esanda, hainbat ikaslerekiko barkamen eskaera bat da liburu hau.

Dekalogo forma ematen hasi nintzen, lehenengo lana hamar puntuak zehaztea izan zen: “Nola laburbildu dezaket, hamar puntutan zein izan beharko litzatekeen, nire ustez, irakaslearen rola edo zein izan beharko liriatekeen irakaslearen ezaugarriak?”. Behin ezaugarri horiek definitu nituenean eta idazten hasi nitzenean, ikasleekin bizi izandako pasarteak etortzen zitzaizkidan etengabe burura, bata bestearen atzetik. Entzutearen garrantziaz idazten ari baldin banintzen, esate baterako, entzuten ez nituen ikasle haiek, *ikasle grisak*, etortzen zitzaizkidan burura. Gauza bera errespetuari buruz idazten ari nitzenean; ikasleen izen-abizenak etortzen zitzaizkidan, eta hor dago barkamen eskaera hori. Horregatik sartu ditut ikasleekin bizi izandako pasarteak, batzuk gordinak, beste batzuk umoretik... eta horien kontaketaren bidez arintzen da liburu.

**Irakasleentzat idatzi duzu liburu. Garbi diozu zein den zure asmoa: irakaslea barrura begira jarri nahi duzu, fokua gugan jarri. Hori da mezu nagusia?**

Nik irakasleei honako mezu hau eman nahi diet: posible da; posible da aldatzea; posible da aldaketa txikiak egitea. Eta eskola, ikastetxe, ikastola edo dena delako bakoitzaren ezaugarrien arabera, posible izango da. Ez naiz sartzen metodologietan eta moduetan, ulertzen baitut eskolaren kokagunearen arabera, egoeraren arabera, ikasle kopuruaren eta ezaugarrien arabera, edo beste baldintza batzuen arabera, aldaketak modu desberdinean egin beharko direla ikastetxez ikastetxe. Baina aldaketak egin behar dira. Kontuan izan behar dugu hezkuntza ez dela apenas aldatu gu ikasle ginen garaitik. Aldaketa asko fisikoak dira, paretak, kristalak eta antzekoak bota edo aldatu dira, baina benetako aldaketa, barren-barrenetik egin behar dugun aldaketa, ez dakit benetan gauzatu ote den. Nire ustez, irakasle bezala egin behar dugun aldaketa nabarmenena haurra ikusteko eta begiratzeko beste modu bat bilatzea da. Horregatik errepikatzen dut ideia eta gonbidapena: posible da aldaketa txikiak egitea. Gu [Larraulgo eskolan] urtez urte joan gara aldaketak egiten, eta gaur egun, 2-12 urte bitarteko ikasle guztiak elkarrekin dauzkagu, eta salto kualitatibo oso handia izan zen. Baina, gaur-gaurkoz, ez nuke hori aldatuko. Ulertzen dut eta onartzen

dut adin nahasketa hain handia ezin dela beste eskola batzuetan egin, baina seguru zentzu horretan beste aldaketa batzuk egin daitezkeela, adinak elkartu daitezke eta hori oso aberatsa da. Pauso txikiak eman daitezke, abiatzeko modua da.

**Baina gainera ditugun sistema eta markoetan, arau eta curriculumetan, zer egin dezake irakasleak aldaketaren mesedetan?**

Nik liburuan argi esaten dut: ez jarri fokua kanpoan, begiratu barrura. Begiratu norberak zer egin dezakeen. Fokua geuregan jartzen dugun momentutik aukerak zabaldu egiten direla ikusiko dugu. Noski, badaude arauak eta badaude legeak; badago klaustroa, badago zuzendaritza... baina, zorionez, hezkuntza pertsonetan oinarritzen da eta irakasle bakoitzak, arauak arau eta legeak lege, gela barruan ere aldaketa asko egin ditzake, hezkuntza egunerokoan hobetzeko pauso asko eman ditzake. Noski, askoz hobe litzateke eskola osoa bat eginda egotea aldaketa horiek gauzatu ahal izateko. Aldaketa txikiak aldarrikatzen ditudanean, irakasle bakoitza bere gelatik ere hasi daitekeen aldaketa txiki horiez ari naiz, baina zabaltzen joaten diren aldaketak dira, ura bezala. Eta badakit, eta seguru nago eskola asko eta asko eta asko ari direla pauso oso sendoak ematen, hobetzeko. Horretan jarraitze-ko gonbitea da liburu hau.

**Kapitulu bakoitzarekin emozio sortzaile izan nahi zenuela diozu eta ez arau-emaile. Ausardia da nabarmen-tzen duzun lehen ezaugarria... Zergatik hautatu dituzu hamar ezaugarri hauek?**

Eskola txikiok Francesco Tonucci-ekin mintegi bat egiteko aukera izan genuen duela urte batzuk. Hark tailerretan lanean has gintekeela proposatu zigun. Lehenik eskola batzuek heldu zioten proposamen horri eta gu bizpahiru urte geroxeago hasi ginen, kolpetik egin beharrean progresiboki egin genuen aldaketa, pauso txikiak eginez hasi ginen eta posible zela ikusiz joan ginen neurrian pauso handiagoak eman genituen. Esperientzia horretatik ateratako ezaugarriak dira liburuan biltzen ditudan asko eta asko.

Lengoaiak aipatzen dira, esate baterako; zer-nolako eskola eskaini nahi diegun hurrei hausnartu nahi dut; gutxi batzuentzako eskola ez eta guztiontzako eskola eraiki behar dugula... Zer esan nahi du guztiontzako eskola batek? Zer suposatzen du ikaslea zoriontsu etortzea eskolara eta, batez ere, zoriontsu irtetea eskolatik? Hori nola egin daiteke? Hausnarketa batek bestera eraman nau. Baina guztiaren abiapuntuan eta lehen-lehenengo, ausardia behar dugu. Irakasleok beldur diogu aldaketari, eta horregatik argi ikusi nuen behar dugun lehen ezaugarria ausardia dela, eta horrekin batera formazioa. Formazioaren beharra agerian dago. Baina kontuz, nolako formazioa? Teorizazioan gehiegi erori gabe, praktikari loturiko formazioa behar dugula uste dut. Askotan teoria eta teoria jasotzen dugu, baina gero praktikan aldatzeko beldur gara eta nik praktikatik teoria egitea aldarrikatzen dut, goazen proba txikiak egiten hastera eta gero lan egiteko modu bat finkatuko dugu. Ausart gaitzen, nor bere esparruan: nik eskolan egiten dudana ez dute zertan berdin egin hemendik 5 kilometrorra dagoen ikastetxean, baina printzipioak bai, nik uste dut berdinak izan behar direla. Ausardia eta formazioa behar-beharrezkoak dira eskolak eraldatzeko, eta ondoren bildu ditutan beste ezaugarriak begiradari loturikoak dira, haurra fokua erdian jarri eta hari aitortzea protagonismoa, ez irakasleari. Oinarritzko printzipioak dira, nire ustez, ikaslearen erritmoa errespetatzea eta ikaslea entzutea. Horregatik aipatzen dut, hainbeste, denboraren kontua eta baita errespetuarena ere. Orain dela ez hainbeste urte gu egon gara haien lekuan, eta badirudi azkar ahaztu dugula. Ikasleen balorazioak egiten ditugunean, adibidez, uste dut errespetu gehiagor aritu beharko ginatekeela; horra beste ezaugarri bat. Ken Robinsonen hitzei jarraituz, talentuen gaia ekarri nahi izan dut, ikasle bakoitzaren gaitasuna kontuan izatea azpimarratu nahi nuen, ulertaraziz ikasle bakoitza altxor bat dela eta ez dagoela, irakaslea jarraitzen ez duelako, molestetzen duen ikaslerik. Hau da, eskolan lekua eskaini behar zaio ikasleari, zentzurik zabalenean, ikasle guztiei. Lekua bilatzen edo

“Nik liburuan argi esaten dut: ez jarri fokua kanpoan, begiratu barrura. Begiratu norberak zer egin dezakeen. Fokua geuregan jartzen dugun momentutik aukerak zabaldu egiten direla ikusiko dugu”

“Eskolan lekua eskaini behar zaio ikasleari, zentzurik zabalenean, ikasle guztiei. Lekua bilatzen edo egiten egon behar duena irakaslea da. Nork jarraitu behar dio nori? Irakaslea da ikasleari jarraitu behar diona eta ez alderantziz”

“Praktikari loturiko formazioa behar dugula uste dut. Askotan teoria eta teoria jasotzen dugu, baina gero praktikan aldatzeko beldur gara”



egiten egon behar duena irakaslea da. Nork jarraitu behar dio nori? Irakaslea da ikasleari jarraitu behar diona eta ez alderantziz.

**Koldo, baina esango dizute, “zuk proposatzen duzun aldaketa eskola txiki batean posible da, baina handi batean...”**

Liburu hau ez da zure eskolan aldaketa nola egin dezakezun esango dizun instrukzio liburu bat. Garbi daukat errealitateak eta egoerak oso desberdinak direla, onerako zein txarrerako. Gure eskolan haur gutxiago egongo dira, bai, baina eskola handiago batean, ikasle gehiago egoteaz gain, baliabide askoz gehiago egongo dira, bai pertsonalak eta bai baliabide materialak ere, beraz, horrek ez luke aitzakia izan behar. Gure adibidearekin jarraituz, ez dut esaten 2 eta 12 urte bitarteko ikasle guztiak elkartu behar direnik, baina ikasleak entzuteko dinamika batzuk eta haurra ulertzeko moduei eta ebaluazioari buruz hausnartzeko tarte batzuk hartu behar dira, ezta? Ikasleari begiratzeko moduak ez dauka eskolaren tamainarekin zerikusirik, berdina izan beharko luke eskola txikietan zein handietan edo ertainetan. Gero irakasle bakoitzak hori nola eraman nahi duen aurrera? Nik gauza batzuk esaten ditut liburuan, esate baterako, testuliburuak ikaslearen erritmoa errespetatzeko garaian mugak izan ditzatekela, baina ez dut esaten ezinezkoa denik, bakoitzak erabakiko du bere eskolan nola

eraman aldaketak aurrera. Ikasleei sormena eskatzen diegu, bada goazen gu ere, sormenez, pausoak ematera.

**Besteak beste, eskola inklusibo eta kooperatiboa duzu mintzagai. Ikasleen artean ez ezik, ikasle eta irakasleen arteko elkarlana proposatzen duzu. Nola eta zergatik?**

Ikasle eta irakasleak, nahi edo ez nahi, ez gaude maila berean, eta hori ikasleek badakite eta irakasleek ere badakigu. Nire proposamena muga hori ahal den neurrian apurtzea da, eta ikaslea eta irakaslea maila berean kokatzea. Ikasleentzako eredu gara irakasleok, bada, eredu izate horretan goazen beraiekin batera ikastera eta beraiekin lan egitera. Haurraren begiradatik asko dugu ikasteko irakasleok, haurraren mundua ikusteko modu zabal horretatik. Esan dut, ordea, ez gaudela maila berean, askotan sartzen garelako gelara aurrez guk ezarritako programa batekin, unitate didaktiko batekin, eta irakaslea da azalpen emaile eta ikaslea hartzaile huts bilakatzen dugu. Dinamika hori hautsi behar dugu, eta beraiekin kontatu behar dugu; “zein da zure interesa?”; “zer egitea gustatuko litzaizuke?”; “egingo dugu hau biok elkarrekin?”; eta saiatu beharko genuke ikasle bakoitzak proiektu bat izan dezan eta, aldi berean, irakasleok ikasle hori proiektu bezala ulertzea, edukien gainetik. Edukietan bakoitzi fikatzen bagara, orduan irakaslea eduki emaile bihurtuko da eta ikaslea

hartzaile, eta ez gara maila berean egongo. Dinamika horietan, gainera, emozioen kudeaketa oso zaila da; “ondoko ikaskidea ulertzeko gai da; baina, ni ez”, ikasle guztiak desberdinak dira, orduan, guztiak behar dituzten aukerak emateko moduak bilatu behar ditugu.

**Talentu guztiei lekua egingo dien eskolaz ari zara, baina bukaera-bukaeran gai zehatz batzuen gaineko nota batekin ebaluatuko ditugu ikasle guztiak. Batek esango dizu, “hau guztia, hortaz, zertarako?”**

Zenbakikuntzak eta hizkuntzak pisu handia daukate gaur eguneko hezkuntza sisteman, eta neuk ere, berez, hala izen behar dutela uste dut, bizi osorako baliabide direlako, eta haurrek etorkizun hurbilean erabili beharko dituztelako. Baina gaitasun horiek badaukate lekua eskolan, eta eremu horietan talentua daukaten ikasle batzuk agerian jartzen dira dagoeneko, beti ikasle berdinak izaten dira eta oso maiz nabarmentzen dira. Kontua da beste ikasle askok ez dutela lekua topatzen. Horregatik azpimarratu nahi dut lengoaia gehiago eskaini behar dituela eskolak; eskolaren zeregina da haur guztiei nabarmentzeko aukerak ematea, eta ez astean ordubete bakarrik. Irakasleak beraien denborak kudeatzeko gai dira, eta irakasleok badakigu, 12 urtera bitarte behintzat, haur batek zer estrategia beharko lituzkeen Bigarren Hezkuntzarako jauzia egiteko. Beraz, bitarte horretan guztian artean edo sormen-lanetan edo antzerkigintzan edo dantzan edo bestelako diziplinetan agerian jartzeko aukerak izan beharko lituzkete ikasle guztiak, eta era horretan ez dira ikasle grisak izango. Gure eskolan ere hizkuntzak eta zenbakikuntzak pisua daukate, baina ez diegu ikasleei zer idatzi behar duten esaten, liburutegi tailerrean idazteko eta irakurtzeko aukera daukate, eta gu beraiekin gaude sormen-lan horietan, baina zer idatzi behar duten zehaztu gabe. Zientzian esperimintatzeko aukera daukate, zenbakiekin aritzekoa... Arte tailerrean beste sormen mota bat jar dezakete agerian; gorputzaldi tailerrean emozioekin egiten dugu lan... Irakasleok aukeratzen dute tailer bakoitzari zenbat denbora eskaini, ez diegu irakasleok markatzen.

**Zerbait oso iraultzailea proposatzen duzu, geldotasuna eskolaren ezaugarri bihurtzea. Korrika bizi garen honetan, eskolak egin al dezake halako utopia-rik?**

Dena da gaurko, dagoeneko ez da biharko ere, dena da gaurko! Konpetentziei buruz asko hitz egiten dugu, baina nik uste dut konpetentzietan ez eta konpetitibitatean erortzen garela, etengabe konparaketak egiten ditugunean. Bi gauza oso desberdin dira. Denborari dagokionez nik neuk ere autokritika asko egiten dut. Denok ditugu kontraesanak eta berriro diot, nire liburua barkamen eskaera bat da, besteak beste, askotan ez dudalako haur bakoitzaren denbora errespetatu. Gaur egun ia-ia Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara haurrak irakurtzen ikasita pasatzea eskatzen dugu, dekodifikatzea eta irakurtzea gauza bera izango balira bezala. Konpetizio batean gaudela ematen du: zergatik iritsi behar dute hurrek Lehenengo mailara irakurtzen jakinda? Haur bat ibitzen hasten denean badakigu bakoitzarek bere erritmoak dituela, batzuk lehenago hasiko direla beste batzuk beranduxeago... Zergatik egin behar dugu dena gero eta azkarrago? Goitik ere, dena azkar egiteko eskatzen zaigu. Adibidez, orain digitalizazio plana etorriko zaigu, ordenagailu eta pantaila gehiago, eta, aldi berean, mintegietan ikusten ari gara pantailak kaltegarri direla adin zehatz bat baino lehenago. Zertan ari gara? Azkar joatea ez da beti ona.

**Botila erdi beteta ikusten duzu, baina ez uneoro. Hala diozu: “Ikasleek aukera gutxi dute norabidea hautatzeko. Bidea zehazturik dago”.**

Aipamen horrek Fratoren marrazki bortitz bati egiten dio erreferentzia: ikasleak fabrika batean sartu eta guztiak patroï bereko eta berdin ateratzen dira fabrika horretatik. Bidea markaturik dago? Nik uste dut gaur egungo eskolak ez direla haur guztientzako eskolak. Haur guztiek ez daukate lekua gaur egungo eskolan, eta horregatik diot bidea markaturik dagoela. Nik horri eman nahiko nioke buelta, txikitasetatik: Haur Hezkuntzatik eta Lehen Hezkuntzatik hasita, haur guztientzako eskola bilatzea da nire

asmoa. Bideak irekitzea, izan ere, bidegurutzetan badaude aukera gehiago. Guk bidea markatua daukagu legeak lege eta arauak arau, baina baditugu egoerak aldatzeko aukerak.

**Eta zuk zeuk, noiz egin zenuen *klak*, noiz ekin zenion aldaketaren bideari? Kontatzen duzu ibilaldi batean ikasle guztien aurretik zindoazlea, nahiz eta beraiek hobekiago ezagutzen zuten ingurunea, eta, halako batean, galdu eta bidezidorrean buelta emanda zeu atzetik gertatu zinela, “orain nago ni egon behar nuen lekuan: atzean, eta zuek zoazte aurrean”. Inoiz ez da berandu, ezta?**

Inoiz ez da berandu, noski ezetz. Ikasleei denbora utzi behar diegula esan dut lehen, baina, irakasleok ere denbora behar dugu. Kontuz, ez denbora lozorroan egoteko! Gehiegi hausnartzeak ere lozorroa ekar dezake! Ezin dugu teorizatzen eta teorizatzen eta hausnartzen eta hasunartzen egon, inongo aldaketarik egin gabe.

Noiz egin nuen *klak*? Bada mugarri asko izan ditut bidean. Irakasle on askorekin egin dut lan, asko markatu nauten irakasleak aurkitu ditut, eta beraiek lagundu didate *klak* hori egiten. Baina benetako mugarri ikasleak eurak izan dira, ikasle zehatz batzuk, bereziki. Idazterakoan burura etortzen zitzaizkidan pasarte horietako ikasle izen-abizendun horiek. Horiek lagundu didate *klak* hori egiten. Horrez gain, aukerak izan ditut, eskola txikietan lanean hastea, esate baterako, mugarri bat izan zen niretzat, adin aniztasunaren onura ikusi nuenean, “hau posible da!” esan nuen. Posible da adina kontuan hartu gabe lan egitea, eta hori da nik egin dudana aldaketa nabarmenetako bat, ez jakitea zein ikasmailatan dagoen ikasle bakoitza, guztiak nirekin daude eskolan, eta nirekin egiten dute lan. Bai behetik begiratuta eta baita goitik begiratuta ere, ikasleei aukerak zabaltzen zaizkie, batzuetan askoz gehiago eman baitezakete ustez dagokien mailara mugatu gabe, eta beste batzuei askoz gehiago kostatzen zaie. Baina 12 urtera arte eskolan egongo dira, beraz, egin dezagun ahal dugun guztia ikasleak aurrera egin dezan.

“Hizkuntzan eta zenbakikuntzan talentua daukaten ikasle batzuk agerian jartzen dira dagoeneko, beti ikasle berdinak izaten dira eta oso maiz nabarmentzen dira. Kontua da beste ikasle askok ez dutela lekua topatzen. Horregatik azpimarratu nahi dut lengoia gehiago eskaini behar dituela eskolak”

“Konpetizio batean gaudela ematen du: zergatik iritsi behar dute hurrek Lehenengo mailara irakurtzen jakinda? Zergatik egin behar dugu dena gero eta azkarrago?”

“Posible da adina kontuan hartu gabe lan egitea, eta hori da nik egin dudana aldaketa nabarmenetako bat”

# ESPERIENTZIAK


VENEZUELA

## El Maizaleko haziak ureztatzen

Artasoroek ematen diote izena Venezuelako El Maizal komunari. Nekazaritza-eremuko komuna horretan artoa da gehien lantzen duten laborea. 2009. urtean, lur-jabe bati lurrak kendu zizkion Hugo Chavezek, orduan Venezuelako presidente zenak, eta hainbat nekazariren eskuetan utzi zituen, haiek landu eta kudea zitzaten. Estatu komunala sortzeko bidean emandako beste pauso bat izan zen hura. Orain, hamabi urte geroago, erabat errotua dago El Maizal komuna, eta ilusioz begiratzen dio etorkizunari. Artoaren haziak nola, halaxe ereiten dute etorkizuna egunez egun, haurrei komunaren printzipio sozialistak transmitituz. Urteotan guztiotan zerbait ikasi dute: ezagutza dela lehenengo boterea; eta hezkuntzak balioen transmisiorako duen garrantziaz jakitun, heziketarako espazioak indartzen ari dira El Maizalen. Isabel Gonzalez Lapiya herri-heziketarako eskolaren sorrera, horren lekuko.

**H**aurren heziketa eta prestakuntza politikoa. Nazioarteko eta bertako esperientzien trukaketa izeneko mahai-ingurua antolatu zuen Oinharri Eskolak joan den urriaren 19an Hernanin. Hainbat esperientziaren berri eman zuten mahai-inguruan, eta guk Venezuelakoa ekarri dugu orriotara. Jenifer Milagros Lamus Ramos militante komuneroak eman zuen hango esperientziaren berri. El Maizal komunako ordezkaria da Lamus, eta kooperatibetan jarduten du.

Venezuelako Lara eta Portuguesa estatuen artean kokatuta dago El Maizal; 2.000 hektareako azalera eta 24 kontseilu komunal batzen ditu. 2009. urtean sortu zuten El Maizal komuna, orduan Venezuelako presidente zen Hugo Chavezek lur-jabe bati kendutako lurrak laborari batzuen eskuetan utzi zituen. Chavezek estatu komunalaren



### JENIFER MILAGROS LAMUS RAMOS

#### EL MAIZAL KOMUNAKO ORDEZKARIA

oinarriak ezarri nahi zituen, eta helburua argia zen: inguru hartan nekazaritza-produkzioa sustatzea, eta produkzio hori laborariek beraiek kudeatzea. Hamabi urte geroago, Chavezek berak bultzatu zuen modu horretan bizi dira El Maizalen, eta herri-ekonomiaren eta herri-antolakuntzaren erreferente bihurtu da komuna.

#### Hezkuntzaren balioa

Herria modu egokian antolatzeko heziketa eta prestakuntza oinarrizko zutabeak direla jabetuta, aparteko garrantzia ematen diote hezkuntzari El Maizalen. Hango esperientziaren berri eman zigun Jenifer Milagros Lamusek: “Haurrei zuzendutako prestakuntza politikorako eskola dugu, eta ikastaro ugari egiten ditugu. Horrek komuneroen mugimendura hurbiltzeko aukera ematen die gazteei”. Haurren beharrak aintzat hartzen dituzte beti: “Nolabait esa-



tearren, pedagogiaren ikuspegitik formalak ez diren hainbat jarduera egiten ditugu, eta horrek lagundu egiten die umeei komuna zer den ulertzen, zertarako balio duen eta han nola bizi diren. Jarduera asko egiten ditugu haurrekin, eta komunako kideok prestakuntza-ikastaroak egiten ditugunean, beti egoten dira haurrak zaintzeko espazioak, gurasoek lasai parte har dezaten saio horietan”.

El Maizalen prestakuntza politikorako jarduera asko egiten dituzte, eta umeak han izaten dira beti. Haurrak zaintzeko espazioak dituztela esatean, aisialdian egiten diren jarduerak etor dakizkiguke burura; baina han egiten dutena harago doa. Haurrekin ez dituzte soilik jolasak egiten, ez dira mugatzen aurpegiak margotzera edota saltoka aritzera. Jolasaren bidez, komunari buruzko kontzeptuak azaltzen dizkiete. “Chavez komandantea nor izan zen azaltzen diegu, eta zer garrantzi izan zuen komunaren sorreran. Haurrek kontsignaren bat botatzen dute, eta mistika bat sortzen da.

Esaterako, abesti bat, poema bat edota irakurketa bat interpretatuz, mezuak helarazten dizkiegu, gure lurraldearen kalitatea eraldatzen jarraitzeko helburuz”, azaldu digu Lamusek.

Jarduera horiek, ordea, ez dira nahikoa haurrak eta gaztetxoak hezteko, eta beharrezkoa ikusi zuten hori guztia osatzea. Orduan sortu zuten Isabel Gonzalez Lapiya herri-heziketarako eskolaren proiektua. Gonzalezek ikusi zuen garrantzitsua zela eredu pedagogikoan aldaketa egitea, eta horretara bideratu zuen bere lana. “Kezka zuen nola aldatu erakundeetatik zetorkigun eredu pedagogikoa. Eta eskola sortu genuenean, haren izena eman genion. El Maizalek eskola fisikoa izan behar zuen, haurrak egunero hara joan zitezten hezkuntza tradizionala jasotzera; baina guk ere aukera izan behar genuen beste ikasgai batzuk sartzeko. Hori guztia, Chavez komandanteak aipatzen zuen emakume eta gizon berriak eraikitzeko helburuarekin”.

Eta halaxe egin dute: eurek egoki

**"Haurrei zuzendutako prestakuntza politikorako eskola dugu, eta ikastarougarri egiten ditugu. Horrek komuneroen mugimendura hurbiltzeko aukera ematen die gazteei"**

## ESPERIENTZIAK: VENEZUELAKO EL MAIZAL KOMUNA

ikusi dituzten ikasgaiak sortu dituzte. Familia-nekazaritza da horietako bat. Nekazaritza-eremuan bizi dira, eta garrantzi handia ematen diote horri. Baina badira beste batzuk ere: herri-komunikazioa, kirola, kale-antzerkia, informatika edota abereen gaineko heziketa. Horrez gain, zinema-areto komunitarioak ere badituzte, haurrek beste komunitateetako haurrekin harremanak garatu ditzaten. Gainera, kultura-arratsaldeak antolatzen dituzte eskolan.

### Eskolaren ezaugarriak eta metodologia

Komunako haurren heziketan pentsatuz eta komunaren balioek jarraitzea izan zezaten proposatu zuten eskola sortzea. Eta hainbat gizarte-mugimenduren esperientziak aztertuta eta El Maizalen bertan bizitako esperientzietan oinarrituta abiarazi zuten proiektua. Jarduera politikoetan eta heziketa-jardueretan aita-amen parte-hartzea bermatzeko, heziketarako espazioak sortu beharra zegoela ikusi zuten. Hala azaldu du Lamusek: “Gure eskolaren helburu estrategikoa herri-heziketaren printzipioetan oinarritutako heziketa-espazioa sortzea da, komuneroen seme-alabak komunako batasunaren garrantziaz ohart daitezen. Eta planteamendu hau ez dugu soilik El Maizalerako egiten. Hezkuntza-eredua aldatzeko esperientzia horrek komuna guz-



tietarako balio izatea nahi izango genuke”.

### Ikasle konprometituak

Ikasleek komunaren proiektuarekin konpromisoa izan dezaten nahi dute El Maizalen. Komuneroen borrokan aritzeko gaitasuna izan dezatela, prozesu politikoaren eta ekoizpen-prozesuaren ikuspegi sektarioa alboratuz; ezaguera teknikoak eta ezaguera zientifikoak eskuratu ditzatela. Hau da, gizarte kapitalistaren printzipioen kontrako jarrera duten ikasleak hezi nahi dituzte, komunan nagusi diren printzipioekin, printzipio sozialistekin, koherenteak direnak.

Komunako eskolaren garapenerako, bost oinarri dituzte: lana, komuneroen borroka, antolakuntza

kolektiboa, kultura eta historia. Horretarako, beste herrialde batzuetako esperientziak ere aintzat hartzen dituztela azaldu zuen Lamusek: “Esperientzia ederra ikusi genuen Brasilgo herri-eskola batean. Sei, zazpi eta zortzi urteko haurrak elkarrekin, inguruan heldurik izan gabe, eskolan zer azpiegitura-arazo zituzten eztabaidatzen ari ziren. Arazo hori nola konpondu zitekeen aztertzen ari ziren beren artean. Guk ere halako esperientziak behar genituela pentsatu genuen, eta, orain, hori eraikitzen ari gara”.

### Ebaluazioa

Ebaluazioa integrala izatea hobesten dute El Maizalen. “Esperientzia bere osotasunean hartu behar dugu, eta ikaslearen ibilbidea eta garape-



"Gure eskolaren helburu estrategikoa herri-heziketaren printzipioetan oinarritutako heziketa-espazioa sortzea da"

"El Maizalek eskola fisikoa izan behar zuen, haurrak egunero hara joan zitezten hezkuntza tradizionala jasotzera; baina guk ere aukera izan behar genuen beste ikasgai batzuk sartzeko. Hori guztia, Chavez komandanteak aipatzen zuen emakume eta gizon berriak eraikitzeko helburuarekin"



na aztertzeko aukera ematen duten elementu guztiak aztertu behar ditugu”, esan zuen Lamusek.

Gizon zein emakumeak osotasunean hezi eta prestatu nahi dituzte eskolan, eta Haur Hezkuntzarekin hasita, pixkanaka handitzen joateko eta Lizeoa sortzeko helburua dute. Gaur-gaurkoz, ez dute egitura fisikorik eskolarentzat, eta caney batean, lastoz egindako teilatua duen estalpe batean, aritzen dira. Eskolaren sorrera onartu du Venezuelako Hezkuntza Ministerioak, baina homologazioaren zain daude orain.

Bitartean, ilusioz begiratzen diote etorkizunari El Maizalen. Han, artoa landatzen jarraitzeko haziak ureztatzen dituzte egunero, atsedetik gabe. Txikitik hasita, mundu hobe eraikitzeko ametsari jarraituz. Eta mundu hobe eraikitzeko bidean, hezkuntzak duen garrantzia aintzat hartuta.



# EKARPENAK

JOXE MARI AUZMENDI I. HEZKUNTZA BEKA



JON URBE / FOKU

## Otxandioko eskolak jaso du aurreneko Joxe Mari Auzmendi hezkuntza beka

'Eskola berria' izeneko egitasmoaren izaera integrala nabarmendu du epaimahaiak, bereziki eskolaren eta komunitatearen arteko hurbilpena nabarmenduz, Euskal Herri osorako eredugarri izango delako. **Hik Hasik** eta Hernaniko Udalak antolaturiko bekaren lehen deialdian aipamen berezia egin zaio Jakinmin praktika filosofikoen elkartearen *Jolastuz hausnartzen* haur filosofia proposamenari.

**B**aso eskolari atek irekiz, naturaren integrazioan eta Haur Hezkuntzan ez ezik Lehen Hezkuntzan ere berrikuntza pedagogikoan proposatzen den jauzi kualitatiboagatik eta, batez ere, eskolaren eta komunitatearen hurbilpenari begira proposatzen duen proiektu integralagatik, Joxe Mari Auzmendi Hezkuntza Bekaren epaimahaiak

ebatzi du Otxandioko herri eskola dela Joxe Mari Auzmendi zenaren izpirituari ongien uztartzen zaion proiektua eta beraz, **Hik Hasik** eta Hernaniko Udalak antolaturiko bekaren aurreneko deialdiko irabazlea. Pasa den azaroaren 24an egin da publiko epaimahaia-  
ren erabakia, Hernaniko udaletxean egindako ekitaldian. Bertan parte hartu zuten Hernaniko alkate Xabier

Lertxundik, hezkuntza zinetgotzi Oier Agirresarobek, hezkuntza teknikari Malores Etxeberriak, **Hik Hasiko** Mikel Agirrezabalak eta Otxandioko herri eskolako zuzendari Nagore Agirrebeitiak, Lur Olabarri aholkulariak eta Aloña Erauskin irakasleak, Joxe Mari Auzmendi zenaren familiarekin batera. "Honenbestez, gaurtik aurrera, bi urteko lan prozesua zabalduko

da eskolarekin, eredugarri eta ispilu izango dena herri hezitzaileen sareko herri eta ikastetxeentzat eta, oro har, hezkuntza komunitate osoarentzat”, azaldu zuen Agirrezabalak. “Otxandioko herri eskola ezaguna eta prestigioatua da lehendik ere hobekuntza pedagogikoan eta bereziki bizikidetzan egiten ari den lanagatik, eta **Hik Hasi** ziur dago bekaren bitartez egingo duen jauzia aberasgarri eta ispilu izango dela beste ikastetxeentzat ere. Dagoeneko herriaren eta eskolaren artean eraikia dagoen zubia sendotzeko balioko duen neurrian, eredu exportagarria izango da beste ikastetxeentzat ere”. Bokazio horrekin aurkeztu ere du aurkeztu proiektua Otxandioko eskolak, Nagorre Agirrebeitia zuzendariak aurreratu zuenez: “Otxandioko herri eskolak eramango du aurrera proiektua, baina exportagarria izango da Euskal Herriko beste eskoletarako ere. Komunikazio bat sortu beharko litzateke eskolen artean, besteak egiten dutenaz ikasteko”.

*Eskola berria* izeneko proiektua sei ardatzetan oinarritzen da: ikasleen interesetatik abiatutako ikasketa prozesua; mugimendu autonomoa martxan jartzea; komunikazio sinboliko eta afektiboaren bitartez hizkuntza eta kultura transmititzea; jasangarritasuna; naturan ikastea; eta inklusioa: eskolan zein herrian aniztasuna zentzu guztietan errespetatzea. Proiektuarekin ikaskuntza aktiboago bat sustatu nahi dute, eta horren bitartez, ikasleak euren esperientziatik, errealitatetik ikastera bultzatu. Ikaslea izango da ikasketa prozesuaren erdigune, eta irakaslea izango du bidelagun. Eskola berria aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa jotzen dute eskola eta herria “elkarlanean” aritzea, eta horretarako ausardia ere behar dela adierazi zuen ikastetxeko aholkulariak: “Gelatik eta eskolatik atera behar da”. Proiektuaren ardatz bereizgarrietako bat eskolaren eta komunitatearen arteko zubia berrekitzea da, Olabarrik azaldu zuenez, “eskola ez da herririk gabe eta herria ez da eskolarik gabe”.

#### Aipamen berezia

Halaber, epaimahaik hobetsi du eta **Hik Hasik** eta Hernaniko Udalak begi onez babestu dute lehen deialdi



**Joxe Mari Auzmendi Bekarekin, aurrean, Otxandioko herri eskolako Lur Olabarri, Nagore Agirrebeitia eta Aloña Erauskin. Inguruan HIK HASIko ordezkariak, Hernaniko alkate Xabier Lertxundi, Oier Agirresarobe zinegotzia eta Malores Etxeberria hezkuntza teknikaria eta Joxe Mari Auzmendi zenaren familia.**

honetan aipamen berezi bat egitea. Hain zuzen, ere Jakinmin praktika filosofikoen elkartearen *Jolastuz hausnartzen. Haur filosofia proposamena* proiektuari. “Haurtzarotik hasita, eskoletan beharrezkoa da gogoetatzeko, hausnartzeko eta hori adierazteko eta argudiatzeko gaitasuna lantzea”, adierazi zuen Agirrezabalak, epaimahaiaren ebazpena ezagutaraziz. Honenbestez, Jakinmin praktika filosofikoen elkartearen ezagutaraztea eta zabalpena egiteko konpromisoa hartu du **Hik Hasik**, eta halaber, Haur Filosofiako formazioa eskaintzeko aukera emango zaio Jakinmin praktika filosofikoen elkarteari **Hik Hasiren** Udako Topaketa Pedagogikoetan.

Epaimahia, **Hik Hasiko** hiru ordezkari

rik eta Hernaniko Udaleko hezkuntza ordezkari batek osatu dute. Bi urteko izaera izango du eta 12.000 euroko diru-laguntza. Aurten orotara, hamar proiektu aurkeztu dira beka deialdira, eta emaitzarekin gustura agertu da **Hik Hasi**, “izaera anitzekoak direlako, batzuk ikuspegi nazionalekoak, besteak tokian tokiko proiektuak; elkarleenak, ikastetxeenak...” Joxe Mari Auzmendik bere ibilbidean ondutako lau hezkuntza balioren inguruan ardatzen zen beka: hobekuntza pedagogikoa, euskara eta euskal kulturaren biziberritzea, herri hezitzailea eta inklusioa. “Jasotako proiektuen izaerak erakutsi du hezkuntza komunitatea hobekuntza eta lanerako gogoz dagoela, eta beharra duela”.

# EKARPENAK

'ASKATU EDO MOZTU. EUSKAL HEZKUNTZAGINTZAREN ERRONKA ZAHAR ETA BERRIAK'

## Nora Salbotx: "Kolonizazioa ari du gure hezkuntza sistemen baitan"

"Askatu edo moztu. Euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak" liburua aurkeztu berri du Nora Salbotx Alegriak Txalaparta argitaletxearen eta Iratzar fundazioaren eskutik. Dekolonizazioak behar direla dio Salbotxek: kapitalismoak geure gorputzak kolonizatu ditu eta era berean, frantsesten eta espainiartzen gaituzten sistema horietatik atera eta geurea sortu behar dugu. Geurea, publikoa eta burujabea. Bide horretan, lubakietatik ateratzeko garaia iritsi dela uste du Salbotxek. Arerioa identifikatu eta indarrak metatzeko beharra dugula. Korapiloak askatzen hasteko ordua iritsi da baina galdera planteatzen du Salbotxek berak: korapilo horiek askatu ote litezke moztu gabe?

**M**aistra eta Amaierko eskolako zuzendaria da Nora Salbotx Alegria. Baztango Herrietako Eskoletako koordinazioan ari da gaur egun. Besteak beste, Herri Hezitzaileen sareko, Eusko Ikaskuntzaren hezkuntza lantaldeko, Plaza Hutsako eta **Hik Hasiko** kidea da. Ama, maistra, etxeko andrea, militantea... alderdi asko uztartzen ditu Salbotxek eta pusketaka, zaintzen dituen eta zaintzen duten pertsonen denbora kenduz osatu du *Askatu edo moztu. Euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak* liburua. Aitortza egin nahi izan die guztiei.

### **Liburuaren izenburua bera abiapuntu hartuta, zein dira euskal hezkuntzagintzaren erronka nagusiak?**

Erronka zaharrak eta erronka berriak aipatu ditut liburuan. Azken batean, hezkuntzagintza prozesu bat dela erakutsi nahi izan dut. Gaur egungo

eztabaidan jada azken geltokira iritsi garelara dirudi eta ez da horrela, inondik inora. Lehenalditik datorren prozesu bat da eta oraindik akitu gabe dago. Horrek kezkatzen nau. Erronketako bat da honaino nondik heldu garen jakitea, horrela gauza aunitz ulertzen baitira. Kontakizuna bereraikei edo berrikusi behar dugu zeren ez dago bidean gertatu den horren guztiaren aitortzarik eta nik uste dut elkarri gure arrangurak botatzen dizkiogunean, aitortza eta ezagutza falta izaten direla. Lehendabiziko erronka beraz, horixe da: nondik gatozen jakitea.

### **Zein dira besteak?**

Erronka da, baita ere, ulertzea frantsesten eta espainiartzen gaituen sistema baten baitan ari garelara eta ahal den guztia inurri lan horretatik eraikitzen ari garelara. Baina horren guztiaren gaineko begirada feminista falta da eta baita justizia sozialaren edo klasearen

begirada ere. Neoliberalismoaren kontrako begirada falta da. Hori ulertzen dugun unean hasi ahal izango dugu orain duguna deseraikitzen eta orduan jarriko dugu orube berri bat nahi dugun euskal hezkuntza eraikitzeko. Orube horretan oinarri batzuk falta dira egun: lehen oinarria da euskal hezkuntzak euskaldundu behar duela. Eta hori ere nekez egiten du. Beste erronka bat, elkar ulertzea da. Uste dut aunitz garelara partekatzen dugunok segregazioaren kontrako estrategia urgentea dela, murgiltze eredia urgentea dela, kulturaren transmisio duina egitea urgentea dela eta pausoak eman behar direla norabide horretan.

Gaur egun eztabaidatzen dugun klabeetan autodefentsa posizioetan egoten gara maiz eta elkarrengana hurbildu gaitzaketen bideak aurkeztu ditut.

**Hezkuntza sistema koloniala dela diozu liburuan. Erronketako bat**



**izango dugu ere hiru administra-  
zioen pean egonda hori gainditzea,  
ezta?**

Dekolonizazioak behar direla esaten dut. Nabarmena da adibidez, Iparraldean Molac legearen ondorioz gertatu den guztia, edota Nafarroan eta Euskal Autonomi Erkidegoan euskara ez dela oraindik leku guztietan bermatzen, euskara bermatzen den inguruetan ere ikasleek ez dutela euskarazko gaitasun nahikoa lortzen... *Berria* egunkariak berriki azaleratu duen moduan testu-liburuekin ere gertatzen da: guztiek ez dute Euskal Herria osotasunean hartzen. Nabarmena da kolonizazioa ari duela gure hezkuntza sistemen baitan, horretarako sortuak baitaude Frantziako eta Espainiako hezkuntza sistemak. Baina horrez gain esaten dut, eta hori feminismotik hartu dudana da, kapitalismoak eta sistema honek gure gorputzak ere kolonizatzen

dituela. Ikusi dugu neoliberalismoa nola saiatu den hezkuntzaren bitartez gure gorputzetaraino eta gure bihotzetaraino iristen eta zentzu horretan ere kolonizatuta gaude: patriarkatuak eta neoliberalismoak kolonizatuta. Gure programazioan, gure geletan, gure egiteko moduetan hori guztia nola sartu den aztertu behar dugu. Horregatik diot kanpoko kolonizazioak eta barrukoak daudela. Bertze edozein herrialdetan kapitalismoaren eta patriarkatuaren ondorioz gertatzen diren horiei, guri estaturik gabeko nazioa garelako gertatzen zaizkigunak gehitu behar dizkiegu baina baita gure baitan gertatzen diren horiek ere.

**Hain zuzen ere, gorputz ezabatuei buruz hitz egiten duzu.**

Bai. Hori Bell Hooksi hartu diodan ideia da. Bera ere maistra da eta esaten du gaurko curriculumetan badela

"Hezkuntzagintza prozesu bat dela erakutsi nahi izan dut. Gaur egungo eztabaidan jada azken geltokira iritsi garela dirudi eta ez da horrela, inondik inora. Lehenalditik datorren prozesu bat da eta oraindik akitu gabe dago"

"Neoliberalismoaren kontrako begirada falta da. Hori ulertzen dugun unean hasi ahal izango dugu orain duguna deseraikitzen eta orduan jarriko dugu orube berri bat nahi dugun euskal hezkuntza eraikitzeko"

"PISAk markatuko du ikasleek egin beharreko ibilbidea, pentsamendu hegemonikoari komeni zaiona. Eta horretara bideratuko ditugu eta baldintzatuko ditugu gure esku hartze pedagogiko guztiak"

## EKARPENAK: 'ASKATU EDO MOZTU' LIBURUA



halako ezabatze moduko bat eta gure gorputzak neutralizatzeko nahia. Hori Euskal Herrira ere ekar liteke. Azter dezakegu, esaterako, nola ezabatzen dugun geure gorputza Espainiak edo Frantziak agintzen dituen curriculum horiek lantzean. Edo noraino ezabatzen dugun geure burua Espainiako ibaien izenak Euskal Herrikoak baino lehen irakatsi behar ditugunean. Emakumeak agertzen ez dituzten testuliburuak edota programazioak erabiltzen ditugunean, edo daudenek heteroaruari eta klase ereduari jarraitzen dietenean. Esate baterako, nola ezabatzen dugu geure burua errekonkista, sobietar iraultza edo edozein gai azaltzen dugunean? Eta zer egin dezakegu gorputz horiek azaleratzeko?

### Sistema kapitalistaren baitakoak

**dira munduko hezkuntza sistema gehienak... Eta zerorrek egiten duzu galdera: hezkuntza erreforma hain zaila izango ote litzateke kapitalismo horren baitan?**

Eta erantzuten dut iduri lukeena baino aunitzaz ere ziboga errazagoa izan zaiola hori kapitalismoari, hain zuzen ere, horretarako tresnak jarri dituelako. Batetik, Europako testuinguru geopolitikoan agintarien arteko goi-bilerek garrantzi handia izan dute. Hezkuntzaren kasuan Bartzelonakoa hil ala bizikoa izan zen, patriarkatu kapitalistak hezkuntzan lehorreratzeko hori egin zezan. Bestetik, PISA moduko tresnak sortu dituzte. PISA markatuko du ikasleek egin beharreko ibilbidea, pentsamendu hegemonikoari komeni zaiona. Eta horretara bideratuko ditugu eta baldintzatutako ditugu

gure esku-hartze pedagogiko guztiak, gure hezkuntza prozesu guztiak. Beraz, iduri lukeena baino aunitzaz errazagoa izan zaio. PISA hezkuntza sistema fiskalizatzeko tresna bat da; beste aunitz badiu baino PISA da ezagunena eta agerikoena. Bolonia plana eta gerora etorri diren erreforma horiek guztiak ere arrapaladan sartu ziren munduko toki guztietan. Eta horiek ere norabide berean doaz. Beraz, garbi dago guztia manobra baten ondorio dela. Ikusi besterik ez dago hezkuntza erreforma horietan eta curriculum horietan nolako terminologia jasotzen den: bat-batean ekinzaitetzaz, kalitateaz... hitz egiten hasi ziren. Kapitalismo berrirako eskulana prestatzen ari ziren, nolabait.

**Eta behin hezkuntza sistemen erradiografia hori eginda, esaten duzu hezkuntza sistema irauli egin beharko litzatekeela eta eskola eraitsi beharko litzatekeela. Nondik hasi eraikitzen behin irauli edo eraitsitako hori?**

Batetik espazio partekatutak behar ditugu eta ulertu behar dugu gure lubakietatik ateratzeko tenorea dela. Autodefentsa posizioetan gaude eta posizio horietatik erresistentzia egiten ari gara, baina ez gara ari ezer eraikitzen. Eztabaida publikoa gaur egun ematen den terminoetan edo parámetroetan ematen den bitartean oso zaila izango da zerbait eraikitzea. Izan ere, badugu nahikoa lan geure burua eta gure eskola balekoa dela defendatzen. Espazio komun horiek bilatzen saiatzeko garaia da eta espazio komun horiek eraikitzeko aukera asko dauzkagu. Garbi izan behar dugu gure arerioa ez dela pareko ikastetxea edo hezigunea. Gure arerioa patriarkatua, kapitalismoa, Espainia eta Frantzia dira. Oraindik aunitz dugu egiteko eta ezin gara eztabaida horietan galdu. Goazen lubakietatik ateratzera. Nondik aterako garen? Partekatzen al dugu sistema hau patriarkala dela? Ba hortik tira dezakegu. Partekatzen al dugu segregazioarekin amaitzeko hizkuntza erdigunean jarriko duen estrategia egokia behar dugula? Partekatzen al dugu eskasa zaigula egiten dugun kultur transmisioa? Edo herria inplikatu behar dela? Orain aipatu

ditudan alor horietan sekulako adostasunak daude baina txikira jokatzen ari gara, ez handira. Badira horretarako aukera pila bat. Izan ere, oso antzekoen artean ari gara eztabaida egiten eta antzeko horien artean denok nahi dugu Euskal Herri euskalduna eta patriarkatuak edota kapitalismoak halako esku hartzerik izanen ez duen Euskal Herria. Goazen sare horiek abiatzera komunean ditugun alderdi horietatik.

**Indarrak metatu behar dira, beraz.** Hori da. Badira horretarako baldintzak. Aurreiritziak gainditu behar ditugu eta gure diskurtsoa bera desmerkantilizatu behar dugu. Batzuetan termino oso merkantilistetara eramaten ditugu eguneroko eztabaidak: irakasle bakoitzak zenbat ikasle hartuko ditugun eztabaidatzen dugunean, adibidez. Hori ez da posible.


**Hain zuzen ere euskal eskola sistema publikoaren alde egiten duzu. Eta esaten duzu sistema hori publikoa eta burujabea izango dela edo ez dela izango. Azalduko al diguzu ideia hori?**

Publikoa eta burujabea ez bada ez da euskal hezkuntza sistema izango. Eta publikoa izan al daiteke oraindik ere sekulako joera patriarkala edo androzentrikoa baldin badu? Edo komunitateari bere osotasunean parte hartzea ukatzen badio eta ikaslea bazter uzten badu? Eta ez baditu euskara edo feminismoa erdigunera ekartzen? Zer publikotasun da hori? Bestela publikotasuna soilik titulartateari lotuko litzaioke. Gelara sartu eta Santillanaren liburuak baldin baditugu, Googlen Suitea erabiltzen baldin badugu, espazioaren antolaketa enpresa baten esku uzten badugu... Zer publikotasun da hori? Nik uste dut euskal herritarrok oso kritiko izan behar dugula horrekin guztiarekin. Zer publikotasun dugu orain? Autonomismoari lotutakoa Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, eta Parisi lotutakoa Iparraldean.

**Esan al dezakegu korapilo horiek guztiak askatetik gertu gaudela?** Nik erraten dut baldintzak badirela. Uste dut, batetik, geroz eta jende

gehiagok partekatzen duela egungo bidea agortu dela eta gaur egungo sistemak asetzen ez gaituela erraten duen diagnostia. Sistema honek ez du nahikoa euskalduntzen, zenbait tokitan ez du euskalduntzen, badakigu segregazioak sortutako arazo guztiak hor daudela, badakigu Molac legearen ondorio konstituzionalak euskal hezkuntzari bete-betean eragin diola, Nafarroako Erriberan ez dagoela bermatuta euskaraz ikasteko eskubi-dea... Hori dena badakigu eta badugu diagnostiko komuna. Beraz, badakigu berria den zerbaiten bila joan behar dugula. Ohartzen ari gara patriarkatua, neoliberalismoa, kapitalismo digital eta kognitiboa... Hori guztia sekulako pribatizazioa bultzatzen ari dela. Hainbat eragile ohartu dira horretaz, eta badira baldintzak eragileek espazio berean elkarrekin hitz egiteko hautua egin dutelako. Eskertzekoa da.

**Eta zerbait moztu beharko dugu?** Galdera polita da hori zeren *askatu edo moztu* diot izenburuan eta tarteka niri ere galdera etortzen zait burura: askatu ote daiteke moztu gabe? Eta askatu ote daiteke ariketa desobedienterik egin gabe? Herri ekimenik edo auzolanik gabe eta komunitarismotik erantzun irmorik eman gabe? Neuk ere zalantza dut: hainbat unetan askatzeko ez ote dugun moztu beharko eta hezkuntzatik ere herri harresiz erantzun.



"Espazio partekatuak behar ditugu eta ulertu behar dugu gure lubakietatik ateratzeko tenorea dela. Autodefentsa posizioetan gaude eta posizio horietatik erresistentzia egiten ari gara, baina ez gara ari ezer eraikitzen"

"Publikoa eta burujabea ez bada ez da euskal hezkuntza sistema izango. Eta publikoa izan al daiteke komunitateari bere osotasunean parte hartzea ukatzen badio eta ikaslea bazter uzten badu?"

"Garbi izan behar dugu gure arerioa ez dela pareko ikastetxea edo hezigunea. Gure arerioa patriarkatua, kapitalismoa, Espainia eta Frantzia dira"

# AHALDUNTZE ESKOLA

HILEKOA, NATURALITASUNEZ

---

## Hilekoarekin adiskidetzeko bidean

Eva Rosinok 2017an sortu zuen Amarenea egitasmoa, puerperioa bizitzen ari zela. Gizartelana ikasi zuen aurrena, sexologia ondoren, eta haurdunaldian, erditzean, puerperioan eta umeen hazieraren lehen uneetan emakumeei laguntzeko prestakuntza jaso zuen gero. Bere burua emakume gisa eta bere sexualitatea modu holistikoan ulertzeko beharrak bultzatu zuten Amarenea sortzera. Eta baita hori guztia beste pertsona batzuekin partekatzeko eta euren erantzunak aurkitzeko bidean laguntzeko beharrak ere. Maskulinoa dena integratuago dago gizartean, eta, aldiz, ezezagunak dira emakumeen bizipenak. Horien artean, hilekoa eta haren zikloa. Rosinoren ustez, interesgarria izango litzateke hilekoarekin adiskidetzea, ahalduntzeko; baina ez dugu hilekoaren kulturarik. Eta gabezia horretatik jaio zen ikastetxeetan ere eskaintzen duen “Lehen hilekoetarako kit praktikoa” lantegia.

### **Nola sortu zen “Lehen hilekoetarako kit praktikoa” lantegia egiteko beharra?**

Eskatu egin zidaten, baina nik beharra ikusten nuen ordurako. Izan ere, emakumeekin egiten nituen saioetan, edozein adinetakoak zirela ere, beti esaten zidaten: “Nik hau lehenago jakin izan banu!”. Baita 20 urteko neska gazteek ere. Eta hilekoaren gaineko ezagutzari lekua egiten hasi behar genuela pentsatu nuen.

### **Zer adinetako ikasleei eskaintzen diezu?**

Etapaz zabala da; neskak batek 9 urterekin izan dezake lehen hilekoa, eta 13-14 urterekin izango du beste batek. Lehen hilekoa, menarkia, asko ari da aurreratzen. Litekeena da zerikusia izatea haurrak hartzen ari diren ardurekin edo familien funtzionamenduan gertatzen ari den desordenarekin. Ikerketa batzuek diote zerikusia izan dezakeela gure gorputzean xaboi, garbiketa-produktuen edota elika-

duraren bidez sartzen ari garen gai kimikoekin ere. Adibidez, hormonaz jositako haragiarekin. Nik uste dut guztiaren nahasketa dela. Haur batek lehen hilekoa duenean, haren gorputza jada prest dago kanpora begira egiten den zaintzarako, eta egokia da une horretan ardurak izatea. Dena ari da mugitzen, ez soilik alderdi fisikoa. Garrantzitsua da, baita ere, mutilek hilekoaren zikloa ezagutzea. Etapaz horretan hasten dira mutilak lehen erezioak izaten. Azken batean, ugalkor ez izatetik ugalkor izaterako pausoa da. Lineala izatetik ziklikoa izaterako pausoa. Nik uste dut denak aberasten direla sexu bateko eta besteko gorputzen funtzionamendua ezagututa.

### **Zenbateko iraupena du lantegiak?**

Behar dutenaren arabera eta duten denboraren arabera egokitzen dut. Baina inoiz ez dira izaten lau ordu baino gutxiago. Lau orduko epe horretan, justu-justu izaten dut denbora

ideiak emateko eta ondoren haiek bilaketa egin dezaten tresnak uzteko. Ezin hobea izango litzateke sei ordu izatea, zeren, modu horretan, edukia jasoko lukete, kontzeptuak barnerratu lituzkete eta jakin-mina piztuko litzateke, betiere, begirada garbi batetik, inozentziatik eta, batez ere, naturaltasunez.

### **Zer aurkitzen duzu ikasgeletan? Nola hartzen zaituzte?**

Normalean oso erraza izaten da niretzat haiekin hitz egitea. Izan ere, lasaitasunez eta naturaltasunez aritzen bazara, hori iritsi egiten zaie, eta ireki egiten dira. Uste dut oso garrantzitsua dela zu zeu nola sentitzen zaren, haiek nabaritu egiten dutelako. Ni eroso sentitzen naiz, oso ongi pasatzen dut, eta naturaltasun dezenterekin hitz egiten dugu edozeri buruz. Une batzuetan, barreak izaten dira, edo norbaitek lotsa sentitzen du, baina lotsari ere jaramon egin behar zaio, giza emozioen parte baita. Lotsa handiagoa izaten dute taldea mistoa

denean. Batzuetan, interesgarria da banatuta lan egitea, zeren, taldean neskak eta mutilak baldin badaude, batzuk ez baitira ausartzen galderak egitera eta lasai hitz egitera, besteei begira daudelako.

### **Lineala izatetik ziklikoa izatera pasatzeko prozesuan laguntzea garrantzitsua da. Nola lagundu dezakegu prozesu horretan?**

Presentzia handiarekin, eta baliagarri izango zaizkien baliabideak, tresnak eta ezagutza eskainiz. Konfiantza izan behar dute pertsona horrekin; ez dute ez epaituak ez baztertuak sentitu behar. Oso garrantzitsua da behar duten segurtasuna, aingura sentipen hori, eskainiko dieten helduak ondoan izatea. Pertsona errespetatua sentitzen bada, entzuten diozula sentitzen badu, behar duena galdetzeraz ausartuko da.

### **Hilekoarekin harreman ona ez duen emakume asko dago.**

Bai, ez delako ulertzen. Gizartea lineala da, ez da ziklikoa, eta ez du kontuan hartzen emakumeen gehien-goak bizitzan zehar duen funtzionamendua; hilekoa izaten duela eta zikloak dituela, alegia. Askotan, ulertezintasuna eta erruduntasun-sentipena sortzen dira, pentsatzen dugulako ez genukeela funtzionatu behar funtzionatzen ari garen moduan. Eta norberaren izaeraren kontra egiteak gaixotu egiten gaitu, herostura sortzen digu eta ez digu uzten ahalduz. Nork berak bere buruarekin eta kanpoko munduarekin harreman gatazkatsuak izatea dakar horrek askotan. Hilekoaren zikloa bizitzaren, heriotzaren eta bizitzaren zikloa da. Baina, gure gizartean, ez dugu heriotza ulertzen; askatzeko, zahartzeko eta hiltzen uzteko prozesuak ez du lekurik. Nik zikloarekin bat egiten dudanean eta ulertzen dudanean, ordea, opari bat da, altxorra, zeren oso garbi ikusten baitugu zer fasetan gauden eta zer behar dugun. Oso garbi hitz egiten du hilerokoak.

### **Barnean duguna ikusten laguntzen digu, orduan.**

Bai. Geure burua ezagutzen laguntzen digu. Hilekoaren zikloa oso gertu dago naturatik, eta, naturan ger-



tatzen den bezala, hainbat une ditu: loratzeko unea, fruituak emateko unea, hostoak erortzen diren unea eta historik gabe geratzen garen unea. Haziak lurrera erortzen dira, ilunpean eta lasaitasunean egoten dira, eta badirudi ez dela ezer gertatzen ari; baina dena sortzen ari da. Askotan, ez ditugu ulertzen barnera begiratzearekin lotura duten faseak, eta borroka gertatzen da. Estali egin nahi dugu, eta beste era batera izan dadin saiatzen gara; baina, era horretan, min ematen diogu geure buruari. Eta min ematen uzten diegu besteei. Ulermenik ez dagoelako gertatzen da hori guztia.

### **Interesgarria izango litzateke, beraz, gure zikloak nola funtzionatzen duen ikastea. Lau fase ditu. Zein dira?**

Hilekoaren faseak lotuta daude barneko zikloekin, hau da, bizitzako etapekin, eta baita lurraren zikloekin ere. Batzuetan, lurretik eta bizitzatik bereizita gaudela pentsatzen dugu, baina ezinezkoa da hori, gure gorputza materia delako, lurra bezala delako, eta ezin dugulako bereizi. Pertsona batek nahasmendu hormonalak ditueneko edo hilekoak min handia eragiten dionean, horrek zerikusia izaten du umetokian dugun tentsioa-

rekin, muskuluak ezagutzeko eta lasaitzeko praktika faltarekin. Asko laguntzen du umetokia erlaxatzeak eta perineoko muskuluak lantzeak. Gure barneko zein kanpoko organoekin eta gure sexualitatearekin konektatuta egoteak onura handia dakar. Bestelako begirada bat behar dugu: “Hau nire parte eta nire bizitzaren parte da, eta zaindu egin behar dut, niretzat landu behar dut”.

### **Lantegian, hilekoa dugunean erabil ditzakegun produktuei buruz ere hitz egiten duzue.**

Bai. Jakin-min handiz hartzen dute alderdi hori. Asko gustatzen zaie. Adibidez, tanpoiak nola jartzen diren eta zer onura eta zer eragozpen dituzten jakitea. Tanpoiek ekar ditzaketan arazo berri izatean, harrিতa geratzen dira; izan ere, beste produktu batzuk erabiliz erraz saihestu daitezkeen arriskuak dituzte. Informazioa eskaintzen diegu, une bakoitzean zer erabili nahi duten erabaki dezaten. Hori bai, beti azpimarratzen dut kontzientzia ekologikoa. Garrantzitsua da horrek guztiak ingurumenari dakarkion gastuaz jabetzea, bai eta gastu ekonomikoaz jabetzea ere, jakina.

# GALDEIDAZU

## PUBLIKOTASUNAZ HITZ EGITERAKOAN, BESTE KONTZEPTU BAT JARRI DUZU MAHAI GAINEAN: EUSKAL HEZKUNTZA ZERBITZUA. ZERTAN DATZA?

**H**ezkuntza zerbitzuaz hitz egitea ez da zerbait berria. Estatu edo Administrazio bat hiritarrei hezkuntza zerbitzua bermatzeko bere menpe dauden ikastetxeek baliatzen da eta, hezkuntza-pluraltasuna onartzen duen neurrian, beste eragile batzuei eman ahal die hezkuntza zerbitzua emateko aukera ere (gurasoen kooperatibak, irakasleen kooperatibak, fundazioak, elizak eta abar). Hornikuntza mistoa oso ohikoa da lurralde askotan, hori bai, proportzio ezberdinetan. Lurralde gutxitan (Belgikan, Holandan, Irlandan...) gure hornikuntza mistoaren sendotasuna aurki dezakegu, non erdibana sare publiko eta sare pribatuaren artean (itundua, hori da geure artean sortu den hornikuntza ekonomikoaren formula) ikasleak banatzen diren.

Araudiak, bai Estatukoak, bai gure erkidegokoak, kontzeptua islatzen du. Adibidez, LOMLOEK bere 108. artikuluan honela dio: *“La prestación del servicio público de la educación se realizará, a través de los centros públicos y privados concertados.”* Eta gure 293/87 dekretuak, itunei buruzkoak, erredakzio bihurri samarra eta, nire ustez, gaztelerazko bertsioan



**GONZALO LARRUZEA**  
Didaktika eta Eskola  
Antolakuntzan doktorea.  
Eusko Jaurlaritzako  
hezkuntza ikuskari ohia



(edo alderantziz) kointziditzen ez duena erabiliz, hitzaurrean horrela dio: “Herri-saretik, norbanakoen alorreko saretik eta ikastolen saretik abiatuz, demokraziaren arauzko, aunitzkor, ontasunezko eta itunebidezko jaurpidepean herri-diruz eutsitako Euskal Herri Eskola bakar bat lortzea dugu unibertsitateko ez besteko euskal hezkuntza-sistema berrantolatzearen xede.”

Orduan, kontzeptua ez da berria eta bere isla legala ere ez. Nik zerbait berria planteatzekotan, gure erkidegoan hezkuntza zerbitzuaren birformulazioa edo birfundazioa litzateke, zerbitzu horren menpe egongo liratekeen ikastetxeetan balio publikoak sakonduz, bermatuz eta kontrolatuz. Birjaiotza horretarako ez da beharrezkoa izen bat asmatzea. Nire iritziz, nahikoa da Euskal Hezkuntza Zerbitzua izendatuz gero.

Euskal Hezkuntza Zerbitzua (aurrerantzean EHZ) ez da sare publiko bateratua. Aurreko etapa izan daiteke agian, baina helburu horretarako heldutasunik ez dago gure oraingo egoeran. Orduan, EHZn administraziopean dauden ikastetxeak eta pribatu itunduak kabitzen dira. Dena den, izen bat asmatzearekin ezin dira

estali sakonean dauden arazoak edo dugun sistema duala.

Izan ere, hornikuntza mistoa duten sistemek korporatibismoa, segregazioa edo nahi ez ditugun beste eragin batzuk dakartzate aukera-aniztasunarekin batera. Sare bakar batek, demagun estatu batena, berez, ez du aukera berdintasuna bermatzen, baina ikerketek diote hornikuntza mistoa duten lurraldeek, albo-efektu moduan, ikasleen bereizketa gehiago nozitzen dutela. Gure euskal erki-degoan hornikuntza misto hori gure historiaren herentzia zuzena da, baita hezkuntza-politika zehatzen ondorio ere. Edonola ere, aurrera begira abiapuntu saihestezina da. Hasieran esan bezala, geure artean fenomeno horrek duen indarra ez da ohikoa, kasu bakarra ez izan arren. Horrek, neurri batean, azaltzen du sareen artean dagoen desoreka egoera zaurgarrienetan dauden ikasleen banaketan, ahaztu barik sare bakoitzaren barruan dagoen arrakala ere ez dela makala.

Baina hain errotuta dugun sistema duala ezin da gainditu egun batetik bestera. Batzuk konforme daude egoerarekin eta, agian hainbat ukiturekin, kontsolidatu nahiko lukete. Beste batzuk, ordea, Administrazioaren titulartasuna ez duten ikastetxe batzuei publikoaren aitortza eman nahiko liekete, titulartasuna askatu barik eta beharrezkoak diren beste urrats batzuk eman barik. Ni "erdibidean" kokatzen naiz. Esan nahi dut, egoera dagoen moduan ezin da ontzat eman, baina aldi berean ez daude baldintzak eskola publiko bakarra eta komunitarioa sortzeko. Norabide horretan letorke EHZren proposamena, EHZ baita posible ikusten dudana gertuko urratsa publiko eta pribaturen artean etengabeko soka-tira antzua gaindituz joateko.

Titulartasunak duen garrantziaz jabetuta egon arren, dialektika horretatik ateratzen hasteko arazoari beste ikuspuntu bat ematea ezinbestekoa da, galdera diferente bat planteatzea, alegia. Hauxe galdera: zer da interes publikoa duen hezkuntza? Zer baldintza bete behar ditu ikastetxe batek interes publiko eta soziala edukitzeko?

Nire ustez, EHZn parte hartzeko

ikastetxe batek honako baldintza hauek behintzat bete beharko lituzke:

1. Inolako hesi diskriminatzailerik ez izatea (arrazaz, generoaz, ideologia, sinesmen politikoak, erlijio-soak, gizarte- eta ekonomia-egoera, aniztasun funtzionala, etab.). Hesiak aktiboki programatu daitezke, baina askotan inertziek jartzen dituzte. Edonola, borondatea eskatu behar da mugiarazteko, kuotak eta beste iragazki ekonomikoak desagerrarazten hasita.

2. Gardena eta irabazi-asmorik gabekoa izatea. Gardentasuna kudeaketa ekonomikoari dagokionez ezarri behar da, baita eskolaren berezko jarduerari eta haren ondorioei ere. Kontuak ematea arlo guztietan ohikoa eta gardena izan behar da. Auditoriak ezartzea ezinbestekoa da.

3. Demokratikoa eta parte-hartzailerikoa izatea. Hezkuntza-komunitateak, beren estamentu eta interesen konplexutasunarekin, hezkuntzaren protagonistak izan behar dira, autokudeaketa-maila handiarekin. Argi eta garbi, printzipio horren barruan sartzen da langileen nolabaiteko hautaketa.

4. Ikasleen aniztasuna errespetatzea eta hari erantzutea. Bestela esanda, zentro inklusiboa izatea eta gizarte-kohesioaren eskakizun sozialei erantzutea. Hori dela eta, ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Konplexutasun Indizea, ezinbesteko tresna dugu eta hezkuntza politikaren erdigunera ekarri behar dugu. Gizarteak jakin behar du Ikastetxe bat —publiko zein itunpekoa— segregatzailea edo inklusiboa den eta horren arabera Administrazioak erabakiak hartu behar ditu.

Baten batek galdetu dezake izaera propio eta zehatza (erlijiosoa, politiko, pedagogikoa...) duten ikastetxeak onartu daitezkeen. Une honean, baietz uste dut. EHZ pluralaz ari garen neurrian, eta ez sare publiko bateratu batez, ez nioke uko egingo idearioari, bai, ordea, ikasleak horren arabera aukeratzeari. Gainera, uste okerra da pentsatzea Eskola Publiko batek ez duela ideariorik, izan beharko bailuke eskola komunitateak definitzen duen Hezkuntza Proiektuaren bidez, non balioak eta apustuak islatuta egon beharko lirartekeen.

Hain errotuta dugun sistema duala ezin da gainditu egun batetik bestera. Batzuk konforme daude egoerarekin eta, agian hainbat ukiturekin, kontsolidatu nahiko lukete. Beste batzuk, ordea, Administrazioaren titulartasuna ez duten ikastetxe batzuei publikoaren aitortza eman nahiko liekete, titulartasuna askatu barik eta beharrezkoak diren beste urrats batzuk eman barik. Ni "erdibidean" kokatzen naiz

EHZn sare publikoari protagonismoa hartzea dagokio balio publikoak ordezkatzeko dituen sarea baita, besteak beste, azken tokiraino eta azken ikaslearengana heltzen delako, askorentzat gustuko erdua ez izan arren. Jakina, rol nagusi horrek ez dio automatikoki izaera publikoaren zigilua ematen. Hainbat eraldaketa beharrezkoak izango dira. Baina bere baitan azken lau hamarkadetan bizi izan dituen eraldaketei esker, hiritarrentzako arrotza izatetik propioa sentitzera eta beretzat hartzeri igaro da gehiengo batentzat. Bere aldeko apustua etorkizunean mantendu eta sakontzeko eskubidea irabazi du. Administrazioak sendo lan egin behar du eskola publikoaren hazkuntzan, hamar urtetan eskola hegemonikoa izateko, beti ere funtzionamendu publiko eta interes soziala erakusten duten ikastetxeak zainduz. Bi gauzak posible ikusten ditut hurrengo hamarkadan.

Prozedura aldetik beste apunte bat: atoa ezin da pasatu eskatzen dudana birformulazioa egitera. Lehenengo

## GALDEIDAZU: EUSKAL HEZKUNTZA ZERBITZUA. ZERTAN DATZA?

eta behin alderdi politiko eta hezkuntza eragileen artean argitasunez definitu eta arautu beharko litzateke EHZ (ezaugarri publikoak, sarbideak, epeak, barne funtzionamendua, finantzazioa...). Hezkuntza Itunean jaso beharko litzateke EHZ birsortzeko konpromiso zehatza, prozedura eta epea. Hori gure hurrengo erronka nagusienetarikoa bat litzateke.

Orduan, gorago deskribatutako lau ezaugarri horiek, behintzat, bete beharko litzateke EHZren menpe egon litezkeen ikastetxe guztiek. Balio publiko horiek neurtu eta aztertu behar dira ikastetxe guztietan, publikoak zein itunduak. Beste era batera esanda, sareei dagokienean bi norabidetan egin behar da lan: norabide batek planteatzen du nola egin eskola publiko deszentralizatuagoa eta beste norabideak planteatzen du nola egin eskola itundu publikoagoa.

Batzuek eskola publiko monopo-

likoa nahi dute, kolore bakarrekoa, eta, berdintasunaren izenean, ez dira fidatzen kogobernatza-ereduetatik eta autokudeaketa komunitario handiagotik etor daitekeen aniztasunaz. Ez zaie arrazoirik falta, gizakiok dugun bereizketarako joeragatik. Baina beldur horrek ezin du eskola demokratikoago eta parte-hartzaileago baterantz sakontzea geldiarazi. Puntu honetan, zintzotasunez galdetu behar da, besteak beste, hori zenbateraino den posible egungo funtzionario-sistemarekin, funtzio publikoan sartzeko sistemarekin edo ikastetxeak hornitzeko sistemarekin. Sindikatuek berrikusi behar dute zer paper jokatu nahi duten. Estatuko legedia bide hau jorratzeko beste oztopo bat da.

Bestaldetik, itunen araudia berrizteko garaia heldu da eta ituna emateko ezaugarri publikoak zorrotzu eta, batez ere Administrazioak zorrotzasun handiagoz betearazi, ikastetxe itunduek demokrazia, parte hartze eta inklusibitatearekin izan behar duten konpromisoa zalantzarik gabekoa izan dadin. Era berean, diskurtso kontrajarrietatik atera behar dugu; izan ere, itunpekoari eskatzen zaio,

batetik, erantzukizun handiagoak har ditzala ikasleen aniztasunarekiko arretan, eta, bestetik, asaldatu egiten gara finantzaketaz hitz egiten denean. Finantzazioa, batetik eta doakotasuna, gardentasuna, inklusioa eta gainontzeko eskakizun publikoak, bestetik, korapilo nagusiaren parte dira.

Bi bideek eskatzen dute administrazio adoretzu bat, orekak mantentzearekin konformatzen ez dena. Ituna (eta legea) abagunea dira balio publikoetan aurrerapausoak emateko eta erabaki konplikatuak hartzeko. Batetik, eskola publikoa komunitarioago bihurtzeko behar dituen erreformak abian jartzeko, nahiz eta marko estua izan. Bestetik, ausardiaz agertu behar da beste ituntzeko politika aurrera eramateko. Pribilejioei aurre egitea oso gatazkatsua da, baina orain arte eraman den ituntzeko politika berrikusi behar da, ondorio guztiekin. Bi norabidetan, teoria erraza da, baina toki askotatik sor daitezkeen erresistentziak, itzelak.

Ba al gara Administrazioa (eta gizartea) demokrazia eta justizia soziala erdigunean jartzeko gai?

Itunen araudia berrizteko garaia heldu da eta ituna emateko ezaugarri publikoak zorrotzu eta, batez ere Administrazioak zorrotzasun handiagoz betearazi, ikastetxe itunduek demokrazia, parte hartze eta inklusibitatearekin izan behar duten konpromisoa zalantzarik gabekoa izan dadin. Era berean, diskurtso kontrajarrietatik atera behar dugu; izan ere, itunpekoari eskatzen zaio, batetik, erantzukizun handiagoak har ditzala ikasleen aniztasunarekiko arretan, eta, bestetik, asaldatu egiten gara finantzaketaz hitz egiten denean




# ARGITALPENAK



**ITSASO ZABALERA**  
Maialen Alfaro-Mayana Itoiz

## ELKAR

Igo itsasontzira eta zatoz itsaso zabalera, ea zer aurkitzen dugun! Istoria bizitzeak haurri bere gorputza entzuteko eta konfiantza indartzeko aukera emango dio. Ariketa praktikoak ere proposatzen ditu liburua eta helduaren laguntzaz edo liburuko audioak entzunez, liburuan murgiltzeko aukera izango du.



**BOST AKASTUNAK**  
Beatrice Alemagna

## TXALAPARTA

Bost lagun xeble dira bost akastunak: lehena zuloz beterik dago; bigarrena, bitan tolesturik; hirugarrena, logaleturik beti. Laugarrena buruz behera dabil eta bosgarrena okerra da goitik behera. Elkarrekin bizi dira eta Bikainaren etorrerak bizitza aldatuko die. Garazi Arrula Ruizek egin du itzulpena.




**EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK. ORNOGABEAK**

Igor Sarralde eta Asier Gorostidi

## TXALAPARTA

Badago miniaturazko mundu ezkutu eta ia ikusezina, ezezaguna gehienontzat, baina milaka sorpresa dituen. Egunero ehunka izaki mugitzen dira gure inguruan eta animalia txiki baina garrantzitsu horiek hobeto ezagutzeko aukera ematen digu liburua.



**O!**  
Josse Goffin

## KALANDRAKA-PAMIELA

Artea ezagutzeko eta deskubritzeko hitzik gabeko liburua dakarkigu Josse Goffinek. Orrialdeak zabaltzean, ohartuko gara gauzak ez direla beti era batekoak soilik. Kafe katilua itsasontzia izan liteke, ilargia sugea, arraina ahatea, zapata dinosauro bihurtuko da, hortzetako zepiloa elefantearen isatsa... Gauzak ikusteko hainbat modu deskubrituko ditugu.



**MINI FITXATEGIAK CM1**  
Nicolas Pinel - Philippe Derrien, Elodie Lauret

## IKAS

*Matematika Metodo Heuristikoa CM1, mini-fitxategiak* liburua jolasaren bidez matematikaren gaineko jakin-mina bultzatzen du eta ikasle bakoitzaren erritmoa kontuan hartzeko pentsatua dago. Lana osatzeko, baliabide fotokopiagarriak eskaintzen dituen liburuxka ere argitaratu du IKASek.



**BI HIZKUNTZA GARUN BAKARREAN**  
Hainbaten artean

## EREIN

Elebitasunak hizkuntzaren jabe-kuntzan eta erabileran duen eragina aztertu dute Kepa Erdozia Uriartek, Mikel Santesteban Insaustik eta Adam Zawiszweski *Bi hizkuntza garun bakarrean*. *Euskal psikohizkuntzalaritzaren ekarpenak eta erronkak* liburuan eta gaiari buruzko azken aurkikuntzak modu ulergarrian aurkeztu dituzte.

# PROPOSAMENA

## ‘www.motmo.pro’

### Abestiak egileen eskutik jotzen ikasteko aukera

Abian da 'Motmo' izeneko plataforma digital berria. Nahi duen orok eskuragarri ditu plataforma horretan hainbat euskal musika-taldek eta bakarlarik sortutako abestiak. Egileek abestiak nola jotzen dituzten ikusteko eta ikasteko aukera ematen du webguneak, eta baita partitura originalak eskuratzekoa ere. Gitarra, baxua eta ukelelea jotzeko argibideak jaso daitezke oraingoz, baina aurrerantzean katalogoa zabaltzeko asmoa dute. Euskal musika eta euskal kultura Euskal Herrian ez ezik mundu osoan zabaltzeko asmoz jaio da plataforma berria.

**J**atorrizko artisten eskutik euren abestiak jotzen ikasteko aukera eskaintzen du *Motmo* plataforma digitalak. Partitura originalak eskaintzen dituzte, eta abestiak bere horretan jotzeko aukera ematen dute, diren moduan, proiektuaren sortzaile den Bruno de Zabalak azaldu digunez: “Partiturak ikasteko beste era bat sortu dugu”.

Idea berria da: inork ez zuen halakorik eskaini orain artean. “Otsailean hasi ginen lehen grabaketak egiten. Bi abesti grabatu genituen Hesian taldearekin. Egindako lana hainbat artistari erakutsi genien, gure asmoaren berri emateko eta merkatuak halako produkturik nahiko ote zuen aztertzeko. Erantzuna eta harrera ikusita, proiektua aurrera ateratzea erabaki genuen.

Apiriletik aurrera hasi ginen talde gehiagorekin grabatzen, eta jada 40-50 talderen grabaketak bildu ditugu”, azaldu digu de Zabalak.

Normalean, musika-taldeek lau abesti jotzen dituzte musika-tresna bakoitzeko. Orain, Huntza, Dupla eta Bulego taldeen abesti berriak grabatu dituzte, eta, diskoa kaleratzen duten egun berean, erabiltzaileek abesti berrien partiturak eta argibideak eskuragarri izango dituzte webgunean.


#### **Hutsunea betetzeko asmoz**

Bideoak, partitura ofizialak eta elkarrizketa eskusiboak aurkituko dituzte Motmo plataformaren erabiltzaileek. Elkarrizketa bereziak dira, eta normalean egiten ez zaizkien galderi erantzuten diete artistek: galdera teknikoagoak iza-

ten dira, musika-tresnekin lotutakoak nagusiki.


Arlo honetan hutsunea zegoela ikusita erabaki zuten egitasmoa abiatzea: “Youtuben bideoak eta tablaturak badira, baina, gure ustez, oso zaila da partitura horiek onak izatea. Abestia egileak berak jotzen duenean, ordea, jada ez dago zalantzarik: jotzeko modua hori da. Akordeak horiek dira”, adierazi du proiektuaren sortzaileak.

Irailean abiatu zuten plataforma, eta, oraingoz, ez dute erabiltzaile askorik. “Gaur egun, hainbat abestiren akordeak eta partiturak erraz aurki daitezke Interneten. Kontua da akatsak izaten dituztela. Jendeak denbora beharko du partitura originalak izatea merezi duela konturatzeko, eta harpidetuko direla uste dugu”, esan digu de Zabalak. Izan



## ZEIN DA SARA ZOZAYA-REN LEHENENGO KITARRA ELEKTRIKOA?

Elkarrizketa honetan, Sara Zozayak, bere kitarretako bat erakusten digu, eskuz egindakoa bere aitaren lagun batengatik. Kitarra hau heldu zen Fender akustiko batekin ikasi ondoren, fender kitarra hau oraindik etxean dauka. Gainera, entsaiatzeko bakarrik eta ez zuzenean jotzeko erabiltzearen zergatia kontatzen digu.



ere, Motmo plataforma erabiltzeko, 5 euroko kuota ordaindu behar da hileroko.


### Artistak gustura

Hainbat artistarekin eta taldeekin jarri dira harremanetan egitasmoa abian jartzeko. Eta musikagileek ideia berriari gogoz heldu diotela aipatu du de Zabalak: “Esan ziguten batzuetan jendeak idazten diela abesti jakin bat ikasi nahi duela esanez, baina ez dutela tablaturatik aurkitzen. Egileek normalean ez dute halakorik eskaintzen, denbora asko eskatzen duelako. Orain, ordea, hainbat artista biltzen dituen plata-

forma badagoenez, errazagoa da lan hori egitea. Artistei asko gustatzen zaie euren abestiak erakustea, euren lana zabaldu nahi izaten dutelako”.

Oraingoz gitarra, baxua eta ukelelea jotzeko tablaturak eta abestiak eskaini dituzte, baina eskaintza zabaltzeko asmotan dira aurrera begira: “Hurrengo hilabeteetan, teklatuekin hasiko gara, eta haize-tresnak sartuko ditugu: tronpeta, saxofoia... Trikitia ere sartu nahi dugu, eta, urtebete barru, bateria ere bai”.

Astero, lau edo zortzi abesti berri sartzen dituzte katalogoan, eta nabarmen zabaltzen ari da: ehun



'[www.motmo.pro](http://www.motmo.pro)'

**Taldeak:** Baldin Bada, Dupla, Hesian, Enkore, La Topadora, Modus Operandi, PI L.T., SuaSkakeitan, Vendetta...

**Bakarlarriak:** Keu Agirretxea, Sara Zozaya, Olatz Salvador...

**Musika-tresnak:** gitarra, baxua eta ukelelea. Aurrerago, teklatua, tronpeta, saxofoia, trikitia eta bateria sartuko dituzte.

**Materiala:** egileek eurek jotzen dituzten abestiak, tablaturak eta elkarrizketa esklusiboak.

**Harpidetza:** 5 euro hilean.

abestirekin hasi ziren irailean, eta abenduan, ia berrehun egongo dira eskuragarri. Datorren urtearen amaierarako, 500-600 abesti izatea espero dute.

Euskal Herrian hasi dira, baina, pixkanaka-pixkanaka, mundura zabaltzeko asmoa du *Motmo* plataforma digital berriak. Euskal musika eta euskal kultura zabaltzeko bidea izango da *Motmo*, munduko edozein txokotatik euskal kantak ezagutzeko eta jotzen ikasteko aukera eskainiko baitu. Euskal Herriko mundura eta mundutik Euskal Herrira begiratzeko leihoa izan nahi du plataformak.

# ATZEKO ATETIK



## ORAINARI BEGIRADA BAT ETORKIZUNEAN PENTSATZEN HASTEKO

**ANE ALEMAN QUINTANA**

IRUÑEKO JASO IKASTOLAKO DBH4-KO IKASLEA

**E**torkizuna: gizakiak duen denboraren ikuspegi linealean oraindik gertatu ez diren ekintzek osatzen duten kontzeptua da. Hori da hiztegiek ematen diguten definizioa, baina, zer da etorkizuna ikasleontzat?

Has gaitezen hasieratik; akaso ez digute beti esaten etorkizunera begiratu beharrean oraina bizitzen ikasi behar dugula? Gerokoak pentsatzen egunerokoak galtzen ditugula? Eta, orduan, zergatik egiten dugun guztia etorkizunari begira egiten dugu? Zergatik ikasleok haur batzuk garelarik gure etorkizun osoa eraiki behar dugu? Eta nola jakin zein den gure ametssetako etorkizuna? Agian gaur zerbait gustuko dut eta bihar gorroto dut. Ikasleontzat etorkizuna misterioz betetako istorio bat da, ipuin baten bukaeran jartzen diren hiru puntuak amaierarik ez duela adierazteko.

Beraz, ikasleontzat etorkizuna gizarateak eraikitzen duela esan dezakegu. Argi dago: gizarateak dioenaren arabera, nik orain Batxilergoa egin eta Uni-

bertsitatean sartu beharko nuke. Hori da gizarateak etorkizun bikain gisa ezartzen digun ideia.

Eta guk zer? Galderak... Hau da etorkizunak dakarkiguna: zer egingo dut? Eta ez badut Batxilergoa egin nahi? Zer nota atera beharko nuke nahi dudana ikasi ahal izateko?...

Benetan merezi du gure bizitzaren urterik onenak azterketengatik estresatzen pasatzeak? Zenbakiak bezala sentitzen gara, eta ikasketetan lortzen ditugun emaitzen arabera etorkizunak itsutzen gaitu. Ia egun osoa pasatzen dugu ikasketen menpe: bihar azterketa dut, hurrengo asterako bi lan egin behar ditut... eta, maiz, plangintza horrek guztiak ez digu harago begiratzen uzten, ez ditugu bizitzaren beste alderdiak ahal dugun guztia aprobeztatzen. Horrela izango al da gure etorkizuna? Ez al dut inoiz nire buruari denbora pixka bat eskaintzeko aukerarik izanen?

Gure nahiak alde batera uzten ditugu eta zenbaki bihurtzen dugu gure etorkizuna. Arazoak ekartzen dizkigu horrek. Izan ere, ez da

ikasketen afera soilik izango. Lan bat bilatu eta berriro errutina berean betirako bizitzea ez litzateke gure kezka bakarra izan beharko. Gaur egungo gizarateak ikasketak gure munduaren erdigune bihurtzen ditu, badirudi hori dela gure bizitzetako gauzarik garrantzitsuenak. Horregatik ikasleontzat etorkizuna aldaketa izan beharko litzateke, gure etorkizunetan oraina bizitzen jakin beharko genuke, ikasketez gain bizitzaren beste gauzak ikusten hasi beharko gineteke, eta benetan nahi dugunaren alde borrokatu beharko genuke. Gure etorkizuna guk geuk diseinatu behar dugu, gure erara, gizaratearen pausoak jarraituz edo bide berriak eraikiz, gaur egungo gizarateak jartzen dituen mugak suntsituz.

Argi daukagu, ikasleok galdera asko ditugu etorkizunari buruz, gizarateak eragin handia du guregan eta gehienok ez dakigu zer egingo dugun hemendik urte batzuetara.

Hori da etorkizuna, gure galdera guztiak erantzuteko zeharkatu beharko dugun bidea.

# Hik Hasiren liburu berria

DURANGOKO  
AZOKAN SALGAI

~~20~~ 12 €



Natura, askotariko materialak, sormena, ikerketa, jolasa... eskuak, hankak eta burua mugiarazten dituzten ideiak eta proposamenak

Salgai [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)-en  
Esperimentazioan sakonduz biziberritu

# Pirritx, Porrotx eta Marimotots

ipuina  
+  
diskoa



Ipuin honetan txoriez eta kantuez ari gara, edo norbanakoez eta hizkuntzez; elkar-eraginaz, imitazioaz, hautuez. Irakurri eta entzun, memorizatu eta kantatu... jolastu!

[www.katxiporreta.eus](http://www.katxiporreta.eus)



**Katxiporreta**  
KOOPE.

Oria etorbidea, 10  
Brunet Eraikina 5, E-4  
20160 LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 368 404